



**AIARAKO UDALAK 2021eko MAIATZAREN 20an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA.**

**PRESIDENTEA**

Gentza Alamillo Udaeta jn.

**ZINEGOTZIAK:**

Iñigo Pinedo Vadillo jn.

Montse Angulo Solloa and.

José Antonio Bartolomé Pesquera jn.

Itxaso Gorbeña Allende and.

Susana Martín Benavides and.

Karmele Población Martínez and.

Marian Mendiguren Mendíbil and.

Koldo Mendioroz Goldaraz jn.

Iratxe Parro Uzquiano and.

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita bateko maiatzaren hogeian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Neuk, M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak, lagundu ditut.

**EZ DA BERTARATU:**

Unai Campo Arenaza jn.

**IDAZKARIA**

M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas and.

Alkate jaunak ongietorria eman die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

**1.- Onestea, bidezkoa bada, 2021eko apirilaren 22an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.** Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du uste duela Aktaren azken paragrafoa, Itxaso Gorbeña Allende zinegotzi andrearen esku-hartzeari dagokiona, ez dela Akta horretan agertu behar, hori alkate jaunak bilkura amaitu ondoren egin zuelako.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ PNV) alkate jaunak esan du Udal-aurrekontua onesteko puntuari dagokionez, gaizki idatzita dagoela Luiaondoko Administrazio Batzordearen izena.

Esku-hartze guztiak amaitu ondoren, aipatutako Akta aho batez onetsi da, aipatutako zuzenketekin.

**2.- Berrestea Arabako Foru Aldundiari egindako dirulaguntza-eskaera, 2021-2022 urteetarako energia jasangarritasunerako ekintzak sustatzeko.**- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Arabako Foru Aldundiari egindako dirulaguntza-eskaerari dagokion erabaki-proposamena, 2021-2022 urteetarako energia jasangarritasunerako ekintzak sustatzeko. Horrek honako hau dio:



## **“UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA**

**IKUSI DA.-** Martxoaren 23ko Foru Gobernu Kontseiluaren 157/2021 Erabakia. Horrek onetsi egiten du energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza lerroaren 2021-2022rako deialdia. Hori 2021eko apirilaren 7ko 37 zenbakiko ALHAOn argitaratu zen.

**IKUSI DA** aipatutako erabakiaren Seigarren artikuluan honako hau adierazten duela: “...Dirulaguntzen eskaerak baliabide elektronikoen bidez aurkeztu behar dira I. eta III. eranskinek aipatzen duten dokumentazioarekin batera. Horretarako epea hilabetekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik hasita...”

**IKUSI DA.-** Aipatutako Erabakiaren I. Eranskinean adierazten du aurkeztu beharreko dokumentazioan Udalbatzak hartutako onspen-erabakiaren egiaztagiria dagoela.

**IKUSI DA.-** 2021eko maiatzaren 5eko 2021/220 zenbakiko Alkatetza Dekretua, aipatutako dirulaguntza eskatzen duena, hori ezarritako epean igortzeko.

Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako ERABAKI hau onetsi dadin proposatu du:

**Lehenengoa.-** Berrestea 2021eko maiatzaren 5eko 2021/220 zenbakiko Alkatetza Dekretua. Horrek honakoa dio hitzez hitz:

### **“ALKATETZA DEKRETUA**

**IKUSI DA** Martxoaren 23ko Foru Gobernu Kontseiluaren 157/2021 Erabakia. Horrek onetsi egiten du energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza lerroaren 2021-2022rako deialdia.

**IKUSI DA** “AIARA UDALERRIKO ENERGIA JARDUKETA-PLANA ETA INBENTARIOTZA, AUDITORETZA ETA BEROKUNTZA” deskribapen-txostena, espedientean agertzen dena.

Horrenbestez, honakoa **EBAZTEN DUT:**

**LEHENENGOA.-** Laguntza ekonomikoa eskatzea Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen eta Hirigintza Sailari (“Energia jasangarritasunerako ekintzak bultzatzeko laguntza lerroaren 2021-2022rako deialdian), “AIARA UDALERRIKO ENERGIA JARDUKETA-PLANA ETA INBENTARIOTZA, AUDITORETZA ETA BEROKUNTZA” proiektua gauzatzeko, 12.000 euroko zenbatekoan, BEZa barne.

**BIGARRENA.-** Erakunde honetan indarrean dauden dokumentuen arabera, Aiarako Udalak ez du eskatu ezta jaso ere inongo dirulaguntzarik “AIARA UDALERRIKO ENERGIA JARDUKETA-PLANA ETA INBENTARIOTZA, AUDITORETZA ETA BEROKUNTZA” proiektua gauzatzeko.

**HIRUGARRENA.-** Dekretu hau Udalbatza Osoari aurkeztea, hurrengo bilkuran berrets dezan.



*ALKATE-UDALBURUA:*

*IDAZKARIA:*

*Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

*Sin.: M<sup>a</sup>. Del Carmen Rojo Pitillas.”*

**BIGARRENA.**- *Erabaki hau Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurune eta Hirigintza Sailari jakinaraztea.*

*Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.”*

Gai honen aldeko txostena eman zen Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2021eko maiatzaren 11ko saioan.

Udalbatza jakinaren ganean geratu da, eta aho batez erabaki du, transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**3.- Vital Fundazioarekin lankidetzaz hitzarmena, “Aiara 2030 Plana” proiektua finantzatzeko.**- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Vital Fundazioarekin lankidetzaz hitzarmenari dagokion erabaki-proposamena. Hori “Aiara 2030 Plana” proiektua finantzatzeko da. Erabakiak honako hau dio:

**“ERABAKI-PROPOSAMENA**

***IKUSI DA.-*** *2021eko otsailaren 8an, Vital Fundazioak abian jarri zuen 2021eko Laguntzen 1. deialdia, Arabako elkarte eta erakundeek garatu beharreko proiektuak laguntzeko.*

***IKUSI DA.-*** *Udalak aipatutako deialdian parte hartu duela “Aiara 2030 Plana” deitutako proiektuarekin; 9.000,00 euroko dirulaguntza jaso du proiektu hori garatzeko.*

***IKUSI DA*** *Vital Fundazioaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren proposamena, espedientean dago.*

*Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako **ERABAKI** hau onetsi dadin proposatu du:*

**Lehenengoa.-** *Onestea Vital Fundazioaren eta Aiarako Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren proposamena, espedientean dagoena.*

**Bigarrena.-** *Alkate-udalburuari ahalmena ematea hitzarmena sina dezan.*

**Hirugarrena.-** *Erabaki hau Vital Fundazioari jakinaraztea, dagokion hitzarmena sinatzeko.*

*Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua.”*

Gai honen aldeko txostena eman zen Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordearen 2021eko maiatzaren 11ko saioan.

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak galdetu du itxitako proiektu bat den eta dirulaguntza aurtan jasoko dugun.



Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun dio txosten bat dagoela lan egiten hasteko, hori Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuetako eta Ingurumeneko Informazio Batzordean adierazi zela. Uste du dirulaguntza aurten edo datorren urtean jasoko dugula.

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak eskatu du proiektuaren kopia bat emateko.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**4.- Kreditu gehigarriaren 2/2021 espedientearen berri ematea, bai eta Idazkari Kontu-hartzaitzaren txostena ere, aurrekontu-egonkortasuna ez-betetzearen ondorioetarako.**- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikulua onetsi egiten duela Tokiko Erakundeen Antolakunde, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia. Horren arabera, alkate edo udalburuek, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai-zerrendan aurretiaz dagokion Informazio Batzordean jakinarazi ez diren gaiak sartu ditzakete. Halere, egoera horretan ezingo da horien inguruko erabakirik hartu Udalbatzak ez badu berresten horiek eguneko gai-zerrendan sartzea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, puntu hau gai-zerrendan sartzea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio 2 zenbakiko kreditu gehigarriaren espedientea. Hori Diruzaintzako gerakin likidoarekin finantzatu da eta 2021/257 zenbakiko Alkatetza Dekretuak onetsi zuen. Horren testua honako hau da:

#### **“ALKATETZA DEKRETUA**

***IKUSI DA.-*** Diruzaintzako gerakinaren zati bat 2020 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioak ekarri duen gastu orokorretarako erabiltzeko beharra, 2021era luzatutako 2020ko aurrekontuan gastu-partida batzuk osatzeko edo sortzeko, saihetsezinak diren eta 2021eko aurrekontua onetsi arte itxaron ezin duten ordainketak egiteko.

***AINTZAT HARTU DA.-*** Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Alkatetzak honek honako hau **EBATZI DU**:

**Lehenengoa.** - Ondoren zerrendatzen diren kreditu gehigarriak onestea:

<b><i>PARTIDA</i></b>	<b><i>IZENDAPENA</i></b>	<b><i>ZENBATEKOA / €</i></b>
920.120000	FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIAK	2.902,14 €.
920.160001	GIZARTE SEGURANTZA	12.193,49 €.



920.161030	<i>BORONDATEZKO UKO EGITEAGATIK ORDAINA (AURRETIAZKO ERRETIROA)</i>	59.214,59 €.
334.481009	<i>DIRULAGUNTZA PERRETXIKOEN INGURUKO LIBURUA ARGITARATZEKO</i>	1.000,00 €.
341.481010	<i>EUSKADIKO MOUNTAIN BIKE XCM TXAPELKETARAKO DIRULAGUNTZA</i>	2.000,00 €.
231.625000	<i>EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROKO EKIPAMENDUA</i>	600,00 €.

**GUZTIRA: 77.910,22 €**

Zenbateko hori jarraian zerrendatzen diren baliabideek finantzatzeko dute, espedientea berdinduta eta defizitik gabe aurkezteko moduan:

A. Handitu beharreko diru-sarrereren partidak edo erabili beharreko Diruzaintzako gerakina:

<u>DIRU-SARREREN PARTIDA</u>	<u>IZENDAPENA</u>	<u>ZENBATEKOA / €</u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	77.910,22 €.
	<b>GUZTIRA .....</b>	<b>77.910,22 €.</b>

Onetsitako kreditu gehigarrien guztizkoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrereren guztizkoaren berdina da.

**Bigarrena.**- Kontu-hartzaileak erakundearen aurrekontuko gastuen egoera-orrian aldaketak egitea, berehalako ondorioekin.

**Hirugarrena.**- Dekretu honen berri ematea Udalbatzari, egiten den lehenengo bilkuran.

ALKATE-UDALBURUA,  
Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Nire aurrean, IDAZKARIA,  
Sin.: María Del Carmen Rojo Pitillas.

BEHIN-BEHINEKO DIRUZAINA,  
Sin.- Clara Furundarena Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua



Era berean, Kontu-hartzailetzaren 2021eko maiatzaren 17ko txostenaren berri eman zaio Udalbatzari, Diruzaintzako gerakina kreditu gehigarri hori finantzatzeko erabiltzeagatik aurrekontu-egonkortasuna ez-betetzeari buruzkoa. Txostena horrek honako hau dio:

**“ESKU-HARTZE TXOSTENA**

**GAIA:** *Gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakinaren konturako aurrekontu-aldaketa.*

*Aiarako Udaleko Kontu-hartzailetzako karguari datxezkion eginkizunetan oinarrituta, eta kontuan hartuta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak Diruzaintzako gerakinaren erabileran egindako aldaketak (17/2014 Foru Arauak aldatu zuen arau hori), gerakinaren kargurako kreditu-aldaketa onartu ahal izateko beharrezkoa izango da Kontu-hartzailetzako txosten bat jakinaraztea Udalbatzari, egonkortasun-helburua ez dela bete egiaztatzeko. Txosten hau eginda, eta bi eranskin ditu:*

- *I. eranskina: gerakina erabiltzeko proposamena, kreditu desberdinak gaitzeko.*
- *II. eranskina: Kontu-hartzailetzaren txostena, Diruzaintzako gerakina duten gastuak finantzatzeko egonkortasuna betetzeko ondorioetarako.*

**I. ERANSKINA: GERAKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA**

**2020 LIKIDAZIOAREN GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA, ESPEDIENTE HONEN AURRETIK GASTATU GABEA: 444.845,34 €.**

**ERABILTZEKO PROPOSAMENA: 77.910,22 €**

*Honako aurrekontu-aplikazio hauek sortzeko:*

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENDAPENA</b>	<b>ZENBATEKOA / €</b>
920.120000	FUNTZIONARIOEN ORDAINSARIAK	2.902,14 €.
920.160001	GIZARTE SEGURANTZA	12.193,49 €.
920.161030	BORONDATEZKO UKO EGITEAGATIK ORDAINA (AURRETIAZKO ERRETIROA)	59.214,59 €.
334.481009	DIRULAGUNTZA PERRETIXIKOEN INGURUKO LIBURUA ARGITARATZEKO	1.000,00 €.
341.481010	EUSKADIKO MOUNTAIN BIKE XCM TXAPELKETARAKO DIRULAGUNTZA	2.000,00 €.
231.625000	EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROKO EKIPAMENDUA	600,00 €.

**ZENBATEKOA GUZTIRA: 77.910,22 €.**



## **II. ERANSKINA: KONTU-HARTZAILETZAREN TXOSTENA, EGONKORTASUNA EZ BETETZEAREN ONDORIOETARAKO**

### **I. TXOSTENAREN OINARRIA**

*Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan, aurrekontu-egonkortasunaren helburua, zor publikoaren helburua edo gastu-araua betetzen ez badira, Administrazio ez-betetzailleak ekonomia- eta finantza-plan bat egingo du, abian den urtean eta hurrengoan helburuak edo gastu-araua bete ahal izateko.*

*Bestalde, Foru Arau beraren 7.3 artikuluan ezartzen duenez, aurrekontu-egonkortasunaren helburua ez betetzearen arrazoia Diruzaintzako gerakina duten gastuak finantzatzea bada, ekonomia- eta finantza-planaren ordeiz, Udalbatzari jakinaraziko zaio Kontu-hartzaitzaren eginkizunak betetzen dituen organoaren txostena, eta egoera hori egiaztatuko da. Horrekin batera, toki-korporazioaren finantza-iraunkortasunaren azterketa eta ebaluazioa egingo da, eta, gutxienez, honako hauek jasoko ditu:*

- a) Erakundearen eta haren mendeko erakunde eta organismoen aurrekontu-egonkortasuneko helburuak.*
- b) Diru-sarrereren eta gastuen partida nagusien proiektzioak, joera-bilakaera, hau da, aldatu behar ez diren politikak, eta aztertutako aldirako aurreikusitako neurrien eragina aintzat hartuta.*
- c) Diru-sarrereren eta gastuen proiektzioak zein kasu nagusitan oinarrituko diren.*
- d) Aurrekontu- eta finantza-egoerak Diruzaintzako gerakina agortzen den unean.*
- e) Hala badagokio, inbertsioaren funtzionamenduak gastu arruntean izango duen eragina.*

*Txosten hori kreditua aldatzeko espedientearen parte izango da.*

*Osoko bilkuraren akta, esku hartzeko organoaren txostenarekin eta euskarri gisa balio duen gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundian toki-erakundearen arloan eskumen duen sailari bidaliko zaio. Sail horrek, 30 eguneko epean, beharrezkoa den informazio gehigarria eskatu ahal izango du, bai eta neurri osagarriak hartzea ere; bestean beste, Plan ekonomiko-finantzario bat egitea, toki-erakundearen finantza-iraunkortasuna bermatzeko. Epe hori igarota Arabako Foru Aldundiak ez badu berariazko ebazpenik eman, espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango da.*

### **EREMU SUBJEKTIBOA:**

*Txosten honen bidez, Aiarako Udalaren Diruzaintzako gerakina erabiliz, aurrekontu-aldaketaren finantzaketan eragindako ezegonkortasun-egoera aztertu nahi da. Txosten hau espediente horren parte da.*



**HELBURUAK:**

*Proposatutako aurrekontu-aldaketa Diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatzeak egonkortasun-printzipioa hausten du, baina ez-betetze hori ez da egiturakoa, egoeraren araberakoa baizik.*

*Horretarako, aurrekontu-magnitudeak aztertu behar dira. Txosten honen helburua honako hauek egiaztatzea da:*

- *Aurrezki garbi positiboa*
- *Diruzaintzako gerakin positiboa*
- *Zorpetze finkatuaren maila ekitaldi bakoitzean ezarritako mugak baino txikiagoa*
- *Aurrekontu-egonkortasun finkatua superabitarekin edo finantzaketa-gaitasunarekin (SEC terminoetan)*
- *Gastu-araua betetzea*

*Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan, txostena honela egituratuko da:*

*1.- Egungo egoeraren diagnostikoa: erakundearen **aurrekontu-egonkortasuneko helburuak** betetzen diren edo ez aztertuko da.*

*2.- **Gastuen eta diru-sarreraren egoeren proiektzioak***

*3.- Inbertsioaren funtzionamenduak **gastu arruntean** izango duen eragina.*

**II. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA: AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN HELBURUAK**

*Abenduaren 9ko 641/2020 Foru Gobernu Kontseiluaren erabakia aipatu behar dugu. Horren arabera, Arabako toki-erakundearen zerga-arauaren aplikazioa eten egin da, 2020rako eta 2021erako, ezohiko izaerarekin eta ondorio eskusiboekin. Horrek esan nahi du egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak indarrrik gabe uztea eta gastu-araua ez aplikatzea aipatutako urteetan.*

*Hala ere, informazioari dagokionez, 2020 ekitaldiari dagokion onetsitako azken likidazioan lortutako datuetatik, honako hauek nabarmentzen ditugu:*

<b>MAGNITUDEA</b>	<b>ZENBATEKOA</b>	<b>BETETZEA/EZ BETETZEA</b>
<i>Aurrezki garbi doituak</i>	<i>467.891,52€</i>	<i>POSITIBOA</i>
<i>Gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakina</i>	<i>590.779,40 €</i>	<i>POSITIBOA</i>
<i>Aurrekontu-emaitza</i>	<i>374.781,68 €</i>	<i>POSITIBOA</i>
<i>Zorpetze-maila</i>	<i>0</i>	
<i>Aurrekontu-egonkortasuna</i>	<i>350.068,98 €</i>	<i>BETETZEA</i>
<i>Gastu-araua</i>	<i>-307.315,42 €</i>	<i>-% 14ko BETETZEA</i>

**III. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOEREN PROIEKZIOAK**

*Epe horretarako Plan Ekonomiko-finantzarioan zifrak proiektatzea ahalbidetuko diguten aldagaiak eta neurriak zehaztasunez definitzeko, balizko EGOERA hau ezartzen da:*





- Abiapuntua egoera ekonomikoa mantentzea da, baina oso zuhurrak izan behar dugu jarduketan, egoera ekonomiko ahulean baitaude eragile ekonomikoak, eta horrek eragina izan lezake Udalak jasotzen dituen diru-sarreretan, bereziki Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean parte hartzeagatik lortutakoetan.
- Gastuei dagokienez, arlo horretako murrizketak mantentzetik abiatzen gara, bai langileen gastuetarako, bai bestelako gastuetarako, Estatuko aurrekontu orokorren legearen ondorioz.

Ekitaldi honetan, 2020an bezala, abenduaren 9ko 641/2020 Foru Gobernu Kontseiluaren erabakiz Arabako toki-erakundearen zerga-arauen aplikazioa eten egin da, 2020rako eta 2021erako, ezohiko izaerarekin eta ondorio eskusiboekin. Horrek esan nahi du egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak indarrrik gabe uztea eta gastu-araua ez aplikatzea aipatutako urteetan. Hala ere, eta 2021 ekitaldirako indarraldiarekin, Arabako toki-erakundeentzako gehieneko gutxi gorabeherako ezegonkortasun-tasa bat adostu da, Kontuen Europako Sistemaren arabera kalkulatuta, 2021erako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean zuen hasierako behin betiko partaidetzaren eta 2020 ekitaldirako Funtsean zuen hasierako behin betiko partaidetzaren arteko aldearen baliokidea. Azken hori Foru Gobernuaren Kontseiluaren apirilaren 21eko 186/2020 Erabakiaren bidez onetsi zen.

### **MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA**

Adierazten diren ekitaldietan magnitudeen bilakaera, likidazioaren ondorioz, honako hauek dira:

<b>HELBURUAK</b>	<b>2.019</b>	<b>2.020</b>
<b>Aurrekontu-egonkortasuna</b>	305.675,20	350.068,98
<b>Egonkortasunaren/Sarrera ez-finantzarioen %</b>	12,75 %	<b>14,64 %</b>
<b>Gastu-araua</b>	<b>20.388,08</b>	<b>-307.315,42</b>
<b>Zorpetzea</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
<b>Aurrezki garbi doitua</b>	361.604,53	<b>467.891,52</b>
<b>Aurrezki garbiaren/Sarrera arrunten %</b>	15,56 %	<b>19,57 %</b>
<b>DIRUZAINZAKO GERAKINA</b>	590.384,93	<b>590.779,40</b>

## **IV. AURREKONTU- ETA FINANTZA-EGOERAK DIRUZAINZAKO GERAKINA AGORTZEN DEN UNEAN**

### **III-C.1 DIRUZAINZAKO GERAKINA**

Diruzaintzako gerakin positiboak erakundearen epe laburreko likidezia metatua islatzen du, denboraren une jakin batean, eta eskuragarri dago etorkizun hurbilean gastua finantzatzeko.

#### **Gastu orokorretarako doitutako Diruzaintzako gerakina**

Gastu orokorretarako gerakina bat dator aurrekontuan aplikatzeko dauden hartzekodunen datuekin eta ordaintzeke dauden diru-sarreraren itzulketekin; horrek magnitude



*horren egoeraren irudi errealagoa ematen digu. Magnitude horrek toki-erakundearen epe laburreko likidezia errealari buruzko informazioa eskaintzen digu.*

### **III-C.2 AURREZKI GARBIA**

*Aurrezki garbiak Udalbatzak zorpetzeko duen ahalmenaren berri ematen digu. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du epe luzeko mailegu-eragiketa berriei aurre egiteko gaitasunik. Aurrezki garbia positiboa bada, epe luzeko mailegu-eragiketa berriei aurre egiteko gaitasunari buruzko informazioa emango digu, zenbateko eta zer baldintzatan hitzartu daitezkeen jakin arte. Dena den, erakundearen zorpetze-ahalmenari buruzko informazio zehatzagoa lortzeko, Foru Arauan ezarritakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa doitu egin beharko litzateke, eta, horretarako, ezohiko izaera duten eta errepikakorrak ez diren diru-sarrerak kendu beharko lirateke.*

### **III-C.3 FINANTZA-ERAKUNDEEKIKO ZORRA**

*Zor bizia adierazle garrantzitsua da erakundearen finantza-kaudimena ebaluatzeko. Kaudimen-arazoak gehiegizko zorpetzearen ondorioz izan daitezke, eta horrek finantza-karga handitzea eragiten du; izan ere, gainerako gastu arruntari gehituta, ezinezkoa da erakundearen diru-sarrera arruntek xurgatzea, eta, ondorioz, aurrezki garbi negatiboa izatea.*

### **III-C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA**

*Aurrekontu-egonkortasunak erakundearen finantzaketa-ahalmenaren/beharraren berri ematen digu, eta horrek, zeharka, zorpetzea urtero amortizatzen den kopurutik gora handitzea eragiten du (SEC 95 terminoetan kalkulaturata). Erakundeak finantzatzeko beharra badu (gastu ez-finantzarioak diru-sarrera ez-finantzarioak baino handiagoak dira), horrek esan nahi du erakundeak kanpoko finantzaketa (zorpetzea) behar duela gastuei aurre egiteko.*

### **III-C.5 GASTU-ARAU**

*Gastu-arauak arau fiskal bat ezartzen du, eta horren helburua da gastu konputagarria mugatzea, ekitaldi ekonomiko batetik bestera aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onetsitako ehuneko bano ez hazteko, eta, horrela, aurrezki publiko handiagoa lortzeko, gastu-gehikuntzari oztopo bat jarritz, diru-bilketa handitzeko neurri osagarriekin batera joango ez dena.*

## **III-D. MAGNITUDEEN BILAKAERAREN ONDORIOAK**

*Gastuen eta diru-sarreraren egoera-orrietako kapituluetan erabilitako datuen arabera, Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturako aurrekontu-aldaketaren finantzaketak **ez du esan nahi erakunde horrek egiturazko desoreka duenik, baizik eta egoeraren araberrako desoreka, eta urtebeteko epean ezarritako helburuak betetzen dira berriro, Plan ekonomiko-finantzarioa egiteko beharrik gabe.***

## **V. INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK GASTU ARRUNTEAN IZANGO DUEN ERAGINA**

*Erabilitako proiektioetatik, aurrezki korrante garbi positiboa kalkulatu da; beraz, kreditu-aldaketa horren ondorioz finantzatu beharreko gastuaren (edo inbertsioaren) ondorioz etorkizunean sor litekeen gastu arrunta erakundeak sortutako diru-sarrera arruntek hartu ahal izango dute bere gain. Era berean, zorpetze-ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuaren azpitik dago (ez dago zorpetzerik); beraz, bi datuak batuta, ondoriozta daiteke **ez dela konprometitzen haren etorkizuneko finantza-iraunkortasuna.***



*Gainera, aintzat hartu behar da proposatutako aldaketek ez dutela etorkizuneko ekitaldietan gastu arrunta nabarmen handituko.*

*Txostena kreditua aldatzeko espedientearen parte izango da.*

*Osoko bilkuraren akta, txostenarekin eta euskarri gisa balio duen gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundian toki-erakundearen arloan eskumen duen sailari bidaliko zaio. Sail horrek, 30 eguneko epean, beharrezkoa den informazio gehigarria eskatu ahal izango du, bai eta neurri osagarriak hartzea ere; bestean beste, plan ekonomiko-finantzario bat egitea, toki-erakundearen finantza-iraunkortasuna bermatzeko.*

*Arespalditzan.-*

*IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA.- Sin.: Carmen Rojo Pitillas*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua.*

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**5.- Onestea, bidezkoa bada, judizioz kanpoko kredituak aitortzeko 1/2021 zenbakiko espedientea.**- Jarraian, Udalbatzari judizioz kanpoko kredituak aitortzeko 1/2021 zenbakiko espedientearen berri eman zaio.

Idazkari kontu-hartzaileak egin du espedientea. Horrek honako hau dio:

**“IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA, JUDIZIOZ KANPOKO KREDITUAK AITORTZEKO 1/2021 ZENBAKIKO ESPEDIENTEARI BURUZKOA.**

***Gaia: Judizioz kanpo kredituak aitortzeko espedientea. 1/2021 zenbakikoa. 2021 Aurrekontu-ekitaldia.***

*Aiarako Udaleko Idazkari Kontu-hartzailearen karguari datxekion atribuzioei dagokionean, eta estatu-gaikuntza duten Funtzionarioen Araubide Juridikoko Araudia onesten duen irailaren 18ko 1174/87 Errege Dekretuan ezarritakoari, jarraiki, honako IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENA igorri da aurreko ekitaldien fakturen judizioz kanpoko aintzatespenaren gainekoa:*

### **1.- AURREKARIAK**

- 2021eko martxoaren 23an “**AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA**” enpresak 1000406 zenbakiko faktura aurkeztu zuen, 2020-10-27koa eta 360,00 euroko zenbatekoan (% 21eko BEZa barne). Kontu-hartzaileak egiaztatu du faktura hori ez zitzaiola Udalarari bidali 2020 ekitaldian zehar, baina iaz egindako zerbitzu bat izan zen; beraz, ez dugu ordaindu eta aitortu eta orain ordainduko dugu.

- Era berean, 2021eko apirilaren 20an 2020/12/31ko 20.92 zenbakiko faktura jaso genuen, “**NURIA LAZCANO ARETXABALA**” andrearena, 2.904,00 euroko zenbatekoan (% 21eko BEZa barne). Hori ez da dagokion ekitaldian aitortu eta onetsi, baina Udalean emandako zerbitzu bat izanenez, gastua onetsi eta betebeharrak ekonomikoa aitortu eta ordainketa egin beharko da.

### **2. OINARRI JURIDIKOAK**



*Tokiko Ogasunak araupetzen dituen legearen testu bateratua (TOLTB) onesten duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuko 176.1. artikulua honakoa adierazten du: "1. Aurrekontu bakoitzaren gastuen egoeraren kredituei karguarekin soilik aurrekontu ekitaldiari dagokion urtean burututako erosketetatik, obretatik, zerbitzuetatik eta gastuetatik datozen obligazioak hartu daitezke."*

*Halaber, apirilaren 20ko 500/1990 Errege Dekretuko 26. artikulua, zeinaren bidez 39/1998ko seigarren Tituluko lehenengo Kapituluak garatzen den, abenduaren 28koa, Toki-ogasunak arautzen dituena, aurrekontuei dagokienez honakoa ezartzen du:*

*"1. Aurrekontu bakoitzaren gastuen egoeraren kredituei karguarekin soilik aurrekontu ekitaldiari dagokion urtean burututako erosketetatik, obretatik, zerbitzuetatik eta gastuetatik datozen obligazioak hartu daitezke (TOLTBren 157.1 artikulua).*

*2. Hala ere, aurreko atalean adierazi bezala, hauek onartzeko momentuan indarrean dagoen aurrekontuaren kredituei aplikatuko zaizkie honako betebeharrak: ...*

*c) Errege Dekretu honen 60.2 artikulua erreferentzia egiten die aurreko ekitaldietatik datozen betebeharrari."*

*Aipatutako Errege Dekretuko 60.2 artikulua ezartzen du entitatearen batzordeari dagokiola kredituen epaiketarik kanpoko onarpena, aurrekontu zuzkidurarik ez dagoenean, betiere*

*Bestalde, azaroaren 28ko 2568/86 Errege Dekretuko 50.12 artikulua, zeinaren bidez erregulatu den Toki-erakundearen Antolakuntzaren, Funtzionamenduaren eta Erregimen Juridikoaren Erregelamenduak, beste funtzio batzuen artean, Udalbatzari kredituak judizioz kanpo onesteko eskumena ematen dion.*

*Hori guztia aintzat hartuta, Idazkaritza Kontu-Hartzaitzak honako EBAZPEN-PROPOSAMENEN TXOSTENA igorri du, dagokion Batzordeari helarazi zaiona Udalbatzak onetsi ahal izan baino lehen:*

*1.- Honako faktura honen judizioz kanpoko kreditua aitortzeko 1/2021 zenbakiko espedientea onestea, 2021 baino lehenagoko urte bateko fakturak direlako, horiek ordaindu ahal izateko. Horrela, Udalaren aberaste bidegabea ekidingo da.*

- 2020-10-27ko 1000406 zenbakiko faktura, "AIARALDEA KOOPERATIBA ELKARTEA" enpresarena, 363,00 euroko zenbatekoan (BEZa barne). Hori ordainduko da 2021era luzatutako 2020ko udal-aurrekontuaren 335.22707 partidaren kargua izanda.*
- 2020-12-31ko 20.92 zenbakiko faktura, "NURIA LAZCANO ARETXABALA" andrearena, 2.904,00 euroko zenbatekoan (BEZa barne). Hori ordainduko da 2021era luzatutako 2020ko udal-aurrekontuaren 335.22707 partidaren kargua izanda.*

*Hori guztia jakinarazten dut Arespalditzan.- Idazkari kontu-hartzailea,*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua*



Gai honen aldeko txostena eman zen Ogasuna, Funtzio Publikoa, Barne Araubidea eta Kontuetaarako Batzorde Bereziaren 2021eko maiatzaren 11ko saioan.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da eta aho batez onetsi du, ohiko bozketan, onestea aipatutako fakturen judizioz kanpoko kreditua aitortzeko 1/2021 zenbakiko espedientea, 2021 baino lehenagoko urte bateko fakturak direlako, horiek ordaindu ahal izateko. Horrela, Udalaren aberaste bidegabea ekidingo da.

**6.- Dirulaguntzen Plan Estrategikoa Aldatzeko Erabaki-proposamena.**- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onesten duen toki-erakundearen antolaketaren, funtzionamenduaren eta araubide juridikoaren erregelamenduaren 82.3 artikulua araberak, alkate edo udalburuak, aurretiaz behar bezala justifikatutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai-zerrendan dagokion Informazio Batzordeak aurretiaz landu ez dituen gaiak sartu ahal izango ditu. Halere, egoera horretan ezin izango da gai horien inguruko inongo erabakirik hartu Udalbatzak eguneko gai-zerrenda onesten ez badu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, puntu hau gai-zerrendan sartzea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Dirulaguntzen Plan Estrategikoa aldatzeko erabaki-proposamena. Horrek honakoa dio:

### **“ERABAKI-PROPOSAMENA**

**IKUSI DA.-** *Dirulaguntzen Plan Estrategikoan 2020 ekitaldiari zegozkion dirulaguntzak barne hartzen zituela eta 2021erako luzatu dela; hori udalbatzaren erabakiaren bidez onetsi zen 2020ko ekainaren 15ean, 2020rako Udalaren Aurrekontu Orokorrearekiko eranskin gisa.*

**AINTZAT HARTU DA.-** *Aipatutako Plan Estrategikoaren I. Eranskinean kultura eta kirol arloko dirulaguntzen jarduera xehatzen dela.*

**AINTZAT HARTU DA.-** *Aiarako Udalaren udaleko interes publikoa udalerrian kultura- eta kirol-jarduerak mantendu eta sustatzeko.*

*Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako erabaki hau onetsi dadin proposatu du:*

*Aldatzea Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren I. eranskina (“kultura eta kirola arloko dirulaguntza jarduera”); hala, aipatutako Eranskinean honako pertsona eta/edo erakundeei emango zaizkien dirulaguntza zuzenak gehituko dira.:*

- *Zuzeneko Dirulaguntza Enrique Arbeas Mendibil jaunari, Aiarako perretxikoen inguruko liburu bat argitaratzeko. Dirulaguntza 1.000,00 eurokoa izango da eta ordaindu egingo da 2021era luzatutako 2020ko Udal-aurrekontuaren 334.481099 partidaren kargua izanda, 2/2021 Kreditu Gehigarriko aurrekontu-aldaketaren arabera.*
- *Zuzeneko dirulaguntza AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBARI, 2021eko uztailaren 03an ospatuko diren XCM Euskadiko Txapelketa eta Arabako Txapelketa zein mendiko txirrindularitzako BTT Herri Martxa egiteko. Horren zenbatekoa 2.000,00 eurokoa izango da eta ordaindu egingo da 2021era luzatutako 2020ko Udal-aurrekontuaren*



*341.481010 partidan kargua izanda, 2/2021 Kreditu Gehigarriko aurrekontu-aldaketaren arabera.*

*Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.”*

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**7.- Enrique Arberas Mendibil jaunarekin egingo den Hitzarmenari dagokion erabaki-proposamena, Aiarako perretxikoaren inguruko liburu bat argitaratzeko.** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikulua onetsi egiten duela Tokiko Erakunde Antolakunde, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia. Horren arabera, alkate edo udalburuek, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai-zerrendan aurretiaz dagokion Informazio Batzordean jakinarazi ez diren gaiak sartu ditzakete. Halere, egoera horretan ezingo da horien inguruko erabakirik hartu Udalbatzak ez badu berresten horiek eguneko gai-zerrendan sartzea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, puntu hau gai-zerrendan sartzea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio zein den Enrique Arberas Mendivil jaunarekin egingo den Hitzarmenari dagokion erabaki-proposamena, Aiarako perretxikoaren inguruko liburu bat argitaratzeko. Horrek honako hau dio:

### **“ERABAKI-PROPOSAMENA**

***IKUSI DA.-*** Aiarako Udalaren udaleko interes publikoa udalerrian kultura- eta kirol-jarduerak mantendu eta sustatzeko.

***IKUSI DA.-*** Enrique Arberas Mendivil jaunak aurkeztutako eskaera. Bertan adierazten du perretxikoaren inguruko liburu bat prestatzeko prozesua amaitzen ari dela. Horretan Aiara Eskualdeko pertsonak hartu dute parte eta beste laguntzaile batzuk ditu.

***AINTZAT HARTU DA.-*** Nahikoa kreditu eta kreditu egokia dagoela Hitzarmen honek aurkeztu dituen gastuei aurre egiteko. Hori ordaindu egingo da 2021era luzatutako 2020ko Udal-aurrekontuaren 334.481099 partidan kargua izanda, 2/2021 Kreditu Gehigarriko aurrekontu-aldaketaren arabera.

Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako ERABAKI hau onetsi dadin proposatu du:

**Lehenengoa.-** Onestea Aiarako Udalaren eta Enrique Arberas Mendivil jaunaren arteko Lankidetzaz-hitzarmena, Aiarako perretxikoaren inguruko liburu bat argitaratzeko. Hitzarmenaren testua honako hau da:

**“AIARAKO UDALAREN ETA ENRIQUE ARBERAS MENDIVIL JAUNAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, AIARAKO PERRETIXIKOEN INGURUKO LIBURU BAT ARGITARATZEKO”**



Arespalditzan, 2021eko .....aren .....(e)(a)n

### **HONAKO HAUEK BILDU DIRA**

Alde batetik, **GENTZA ALAMILLO UDAETA JAUNA**, adinez nagusikoa, **AIARAKO UDALEKO** alkate-udalburua delarik

Beste alde batetik, **ENRIQUE ARBERAS MENDIVIL JAUNA**, adinez nagusikoa (NAN zk.: )

### **ESKU HARTZEN DUTE**

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrenak, bere izen eta ordezkartza propioan.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **LANKIDETZA-HITZARMEN** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako

### **HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:**

**LEHENENGOA.-** Enrique Arberas Mendivil jauna lanean ari da perretxikoaren inguruko liburuaren argitalpenean.

**BIGARRENA.-** Aipatutako jarduera 2021eko abenduaren 31rako amaituta egon beharko da.

Aiarako Udalak interesa du udalerrian kultura sustatzen laguntzean; beraz, bi aldeek honako estipulazio hauek erabaki dituzte:

### **LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea**

Hitzarmen honen xedea da **AIARAKO UDALAREN** eta **ENRIQUE ARBERAS MENDIVIL JAUNAREN** arteko lankidetzaren sinatzea, Aiara Eskualdeko perretxikoaren inguruko liburu bat argitaratzeko.

### **BIGARRENA.-**

**AIARAKO UDALAK** gauzatuko duen sustapen-jardueraren edukia zehazten da liburuaren argitalpenak dakartzan gastuen zati txiki baten dirulaguntzan. Liburuaren gastuak 2021ean zehar ordainduko dira.



### ***HIRUGARRENA.-***

*2021erako lankidetzeta-hitzarmen honi dagokion udal-dirulaguntza 1.000,00 eurokoa da.*

### ***LAUGARRENA.-***

*Dirulaguntza hau ordaintzeko modua jarraian adierazitakoa da:*

- *Aiarako Udalak Enrique Arberas Mendivil jaunari emandako dirulaguntzaren % 100 ordainduko dio, hitzarmen honen BOSGARREN KLAUSULAN adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren eta funtsen helmuga behar bezala justifikatu ondoren.*

***Ordaindu baino lehen,** Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean izatearen Egiaztagiria aurkeztu beharko da. Hori izan ezean, Udalak dagozkien erakundeei aipatutako informazioa eskatzeko baimena aurkeztu beharko da.*

*Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du gaiari lotutako egokitzat jotzen duen informazioa.*

### ***BOSGARRENA.-***

***DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA** Aiarako Udalean aurkeztu beharko da **2022ko urtarrilaren 31** baino lehen. Edonola ere, gastuak dirulaguntza jaso den urte naturala amaitu baino lehen egin beharko dira, hau da, 2021ean.*

*Eskatutako justifikazioa ez bada adierazitako epean aurkezten, dirulaguntza ukatuko da eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.*

*Udal-dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO**, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:*

- a) Jasotako dirulaguntza guztien aitortpena, erakunde publiko zein pribatuenak izan, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutakoak.*
- b) Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean izatearen Egiaztagiria aurkeztea. Hori izan ezean, Udalak dagozkien erakundeei aipatutako informazioa eskatzeko baimena aurkeztu beharko da.*
- c) Jardueraren garapenari lotutako honako dokumentu hauek:*
  - *Egindako jarduerari buruzko memoria.*
  - *Jardueraren Gastu eta Diru-sarreraren Balantzea, beste erakunde publiko eta zuzenbide pribatuko egon daitezkeen dirulaguntzak barne hartuta. Gainfinantzaketa egotekotan, emandako dirulaguntza murriztu egingo da dagokion zenbatekoan.*
    - *Aitortutako gastuen justifikazio-fakturak, horiek igortzeko lege ezarritako baldintzak bete behar dituztenak. Dagokion fakturaren ordainketa-egiaztagiria erantsi beharko da.*

### ***SEIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena***

*Hitzarmena indarrean egongo da 2021eko abenduaren 31ra arte.*

### ***ZAZPIGARRENA.-***





*Enrique Arberas Mendivil jaunak egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzeta eta babesa jaso beharko da.*

### **ZORTZIGARRENA.-**

*Enrique Arberas Mendivil jaunak Hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen erregimena aplikatuko da.*

*Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzeta-hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten ... orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematzen dute berau beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.*

*ALKATE-UDALBURUA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

*ENRIQUE ARBERAS MENDIVIL JN.-*

*AIARAKO UDALEKO IDAZKARIA.-*

**Bigarrena.-** *Alkate-udalburuari aipatutako Hitzarmena sinatzeko eskumena ematea.*

**Hirugarrena.-** *Erabaki hau Enrique Arberas Mendivil jaunari jakinaraztea.*

*Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta”.*

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak proposamenaren alde bozkatu du.

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak adierazi du alde bozkatuko dutela, baina pentsatzen zutela Batzordera ekarri zenean ideia soil bat zela eta uste zutela emango zen dirulaguntzaren inguruan galdetuko zitzaizela. Adierazi du horrelako gaiak onesteko denbora gehiago eman beharko litzatekeela, analisi handiago bat egin ahal izateko. Gaineratu du azkenaldian denbora gutxi dagoela premiazkoak diren hainbat gauza aztertzeke.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du punturen bat premiazkoa izatean justifikatuta egon dela, baina ahal dela dokumentazioa denbora gehiagorekin bidaltzen saiatuko dela.

Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak eskatu du azaltzeko nola kalkulatu den hitzarmen honetan emango den zenbatekoa.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du aurreko proiektuetan oinarritu dela, baina aintzat hartu dutela honen neurria.

Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak galdetu du Udalak noiz jakin zuen datorren puntuan aipatzen den kirol-froga egingo zela.



Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du frogaren antolatzaileek emandako diru-sarrera eta gastuen balantzea noiz jaso zuen begiratu dela eta jakinaraziko diola.

Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak gaineratu du gustatu izanen litzaiekeela gaia Batzordean landu izana, eta eskatu du oposizioa neurri handiagoan aintzat hartzeko.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**8.- AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAREKIN Hitzarmena sinatzeko erabaki-proposamena, Euskadi XCM Txapelketa, Araba XCM Txapelketa eta BTT Herri Martxa bat antolatzeko Aiaran, 2021eko uztailaren 03an.**- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio, azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 82.3 artikulua onetsi egiten duela Tokiko Erakunde Antolakunde, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoko Araudia. Horren arabera, alkate edo udalburuek, behar bezala arrazoitutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai-zerrendan aurretiaz dagokion Informazio Batzordean jakinarazi ez diren gaiak sartu ditzakete. Halere, egoera horretan ezingo da horien inguruko erabakirik hartu Udalbatzak ez badu berresten horiek eguneko gai-zerrendan sartzea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, puntu hau gai-zerrendan sartzea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAREKIN Hitzarmena sinatzeko akordio-proposamena, Euskadi XCM Txapelketa, Araba XCM Txapelketa eta BTT Herri Martxa bat antolatzeko Aiaran, 2021eko uztailaren 03an. Horren testuak honako hau dio:

### **“ERABAKI-PROPOSAMENA**

***IKUSI DA.-*** Aiarako Udalaren udaleko interes publikoa udalerrian kultura- eta kirol-jarduerak mantendu eta sustatzeko.

***IKUSI DA.-*** AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAK aurkeztutako eskaera; bertan adierazten du Euskadi XCM Txapelketa, Araba XCM Txapelketa eta BTT Herri Martxa bat antolatzen ari dela. Horiek guztiak 2021eko uztailaren 03an egingo dira.

***AINZAT HARTU DA.-*** Nahikoa kreditu eta kreditu egokia dagoela Hitzarmen honek aurkeztu dituen gastuei aurre egiteko. Hori ordaindu egingo da 2021era luzatutako 2020ko Udal-aurrekontuaren 341.481010 partidan kargua izanda, 2/2021 Kreditu Gehigarriko aurrekontu-aldaketaren arabera.

*Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako ERABAKI hau onetsi dadin proposatu du:*

***Lehenengoa.-*** Onestea Aiarako Udalaren eta AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAREN arteko Lankidetzeta-hitzarmena, Euskadi XCM Txapelketa, Araba XCM Txapelketa eta mendiko txirrindularitzako BTT Herri Martxaren antolaketa finantzatzeko. Horiek 2021eko uztailaren 03an egingo dira eta hitzarmenaren testua honako hau da:



**“AIARAKO UDALAREN ETA AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, EUSKADI XCM TXAPELKETA, ARABA XCM TXAPELKETA ETA BTT MARTXA ANTOLATZEKO”.**

Arespalditzan, 2021eko ren (e)(a)n.

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA**

Alde batetik, **GENTZA ALAMILLO UDAETA JAUNA**, adinez nagusikoa, **AIARAKO UDALEKO** alkate-udalburua delarik

Beste alde batetik, **jn.**, adinez nagusikoa (NAN zk.: ), **AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAREN** izenean

**ESKU HARTZEN DUTE**

Lehenengoak Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde honen izenean eta ordezkartzan, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorritz.

Bigarrenak, **AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAREN** izenean eta horren ordezkartzan.

Bi aldeek elkarri aitortzen diote erabateko gaitasun juridikoa eta **LANKIDETZA-HITZARMEN** hau emateko eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako

**HONAKO HAU ADIERAZTEN DUTE:**

**AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBA** antolatzen ari dela Euskadi XCM Txapelketa, Araba XCM Txapelketa eta BTT Herri Martxa. Horiek guztiak Aiaran, 2021eko uztailearen 03an egingo dira.

Aiarako Udalak interesa du udalerrian kirola sustatzen laguntzean; beraz, bi aldeek honako hau erabaki dute:

**LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea**

Hitzarmen honen xedea da lankidetzaren formalizazioa **AIARAKO UDALAREN** eta **AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAREN** artean, Euskadi XCM Txapelketa, Araba XCM Txapelketa eta mendiko txirrindularitzako BTT Herri Martxa bat antolatzen ari dela. Horiek guztiak 2021eko uztailearen 03an egingo dira.

**BIGARRENA.-**

**AIARAKO UDALAK** gauzatuko duen sustapen-jardueraren edukia zehazten da 2021eko uztailearen 03an egingo diren Euskadi XCM Txapelketa, Araba XCM Txapelketa eta mendiko



*txirrindularitzako BTT Herri Martxa antolatzean sortutako gastuen zati txiki bati bideratutako dirulaguntzan.*

*Jardueren antolatzaileak osasun-segurtasuneko arloan indarrean dagoen araudi osoa zehatz-mehatz bete beharko du eta hori betetzen dela bermatu beharko du. Beraz, Aiarako Udala ez da inolaz ere Txapelketetan eta Martxan egondako gorabeherengatik sortutako kalteen erantzule izango.*

### **HIRUGARRENA.-**

*Lankidetzeta-hitzarmen honi dagokion udal-dirulaguntza 2.000,00 eurokoa da.*

### **LAUGARRENA.-**

*Dirulaguntza hau ordaintzeko modua jarraian adierazitakoa da:*

- Aiarako Udalak AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBARI emandako dirulaguntzaren % 100 ordainduko dio, hitzarmen honen BOSGARREN KLAUSULAN adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren eta funtsen helmuga behar bezala justifikatu ondoren.*

*Ordaindu baino lehen, Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean izatearen Egiaztagiria aurkeztu beharko da. Hori izan ezean, Udalak dagozkien erakundeei aipatutako informazioa eskatzeko baimena aurkeztu beharko da.*

*Aiarako Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du gaiari lotutako egokitzat jotzen duen informazioa.*

### **BOSGARRENA.-**

*DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA Aiarako Udalean aurkeztu beharko da 2022ko urtarrilaren 31 baino lehen. Edonola ere, gastuak dirulaguntza jaso den urte naturala amaitu baino lehen egin beharko dira, hau da, 2021ean.*

*Eskatutako justifikazioa ez bada adierazitako epean aurkezten, dirulaguntza ukatuko da eta aurretiaz ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedurari ekingo zaio.*

*Udal-dirulaguntzaren zenbatekoa JUSTIFIKATZEKO, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:*

- a) Jasotako dirulaguntza guztien aitortpena, erakunde publiko zein pribatuenak izan, diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutakoak.*
- b) Foru Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin ordainketak egunean izatearen Egiaztagiria aurkeztu beharko da. Hori izan ezean, Udalak dagozkien erakundeei aipatutako informazioa eskatzeko baimena aurkeztu beharko da.*
- c) Jardueraren garapenari lotutako honako dokumentu hauek:*
  - Egindako jarduerari buruzko memoria.*
  - Jardueraren Gastu eta Diru-sarreraren Balantzea, beste erakunde publiko eta zuzenbide pribatuko egon daitezkeen dirulaguntzak barne hartuta. Gainfinantzaketa egotekotan, emandako dirulaguntza murriztu egingo da dagokion zenbatekoan.*



- *Aitortutako gastuen justifikazio-fakturak, horiek igortzeko legez ezarritako baldintzak bete behar dituztenak. Dagokion fakturaren ordainketa-egiaztagiria atxiki beharko da.*

**SEIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena**

*Hitzarmena indarrean egongo da 2021eko abenduaren 31ra arte.*

**ZAZPIGARRENA.-**

*AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAK egiten duen publizitate guztian, Aiarako Udalaren lankidetzeta eta babesa jaso beharko da.*

**ZORTZIGARRENA.-**

*AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAK Hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen erregimena aplikatuko da.*

*Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzeta-hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo urratzerik gabe, dokumentu hau osatzen duten ... orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematzen dute berau beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.*

*ALKATE-UDALBURUA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

*..... jn., AIARATEAM ATSPORT KIROL KLUBAREN izenean.*

*AIARAKO UDALEKO IDAZKARIA.-*

**Bigarrena.-** *Alkate-udalburuari aipatutako Hitzarmena sinatzeko eskumena ematea.*

**Hirugarrena.-** *Erabaki honen berri ematea AIARA BTTri.*

*Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta”.*

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**9.- Blanca Furundarena Udaetaren eskaera, hainbat zerbitzu eteteko uko egite indemnitzatuaren bidez.**- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak onesten duen toki-erakundearen antolaketaren, funtzionamenduaren eta araubide juridikoaren erregelamenduaren 82.3 artikularen arabera, alkate edo udalburuak, aurretiaz behar bezala justifikatutako premiazko arrazoiengatik, eguneko gai-zerrendan



dagokion Informazio Batzordeak aurretiaz landu ez dituen gaiak sartu ahal izango ditu. Halere, egoera horretan ezin izango da gai horien inguruko inongo erabakirik hartu Udalbatzak eguneko gai-zerrenda onesten ez badu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, puntu hau gai-zerrendan sartzea.

Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio Blanca Furundarena Udaeta andrearen eskaerari dagokion erabaki-proposamena. Hori Korporazioko funtzionarioa da eta eskatu du Udalean gauzatzen dituen hainbat zerbitzu etetea, uko egite indemnizatuaren bidez. Eskaeraren testuak honako hau dio:

### **“UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA**

**IKUSI DA** Udaleko Udalbatzak, 2021eko otsailaren 18an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuela hasiera batean onestea Aiarako Udalaren giza baliabideak arrazionalizazio programa.

Aipatutako programa jendaurrean erakutsi zen 30 egun balioduneko epean, 2021eko otsailaren 24ko 22 zenbakiko ALHAOn argitaratutako iragarkiaren bidez. Ez da hasierako onespenerakiko alegaziorik jarri, beraz, programa behin betiko onetsi da eta 2021eko maiatzaren 12ko 51 zenbakiko ALHAOn argitaratu da horren testu osoa.

**IKUSI DA** aipatutako Programaren 9. artikulua arabera, hori bera indarrean sartu dela testua ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean, hau da, 2021eko maiatzaren 13an.

**IKUSI DA** Blanca Furundarena Udaeta andrearen eskaera, 2021eko maiatzaren 13koa (Sarrera-erregistroko zk.: 1566; 2021eko maiatzaren 13koa). Bertan eskatzen du Udalaren funtzionario izateko uko egiteko eskubidea aitortzeko eta Aiarako Udaleko Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programan jasotako zenbatekoak ordaintzeko. Gainera, Programaren 4. artikulua aipatuta, eskatu du borondatezko uko egitea gertatzean, dagokion Gizarte Segurantzaren kuotak ordaintzeko.

**IKUSI DA** Aiarako Udalaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren 6. artikuluan ezarritakoa, indemnizazioak zenbatu eta ordaintzeko arauei dagokionez.

**IKUSI DA** programaren 7. artikulua ezartzen duela programa honi lotuta dauden eta kalte-ordaina jaso duten jarduketan guztizko kopurua mugatuta egongo dela, eta aurrekontu-ekitaldi bakoitzean plana gauzatzean aplikatu beharreko aurrekontu-baliabideen mende egongo dela; 2021era luzatutako 2020ko Udal-aurrekontuaren 2 zenbakiko kreditu gehigarriaren espedienteren bidez (hori Diruzaintzako gerakin likidoarekin finantzatuko da eta 2021eko maiatzaren 17ko 2021/257 zenbakiko Alkatetza Dekretuak onetsi zuen), aurrekontu-aplikazioa 59.214,59 euroko kredituarekin hornitzen da, espediente honetatik eratorritako betebeharre aurre egiteko.

**IKUSI DA** funtzionarioak erretiro aurreratua hartzeko duen adina 2022ko ekainaren 24a dela, Gizarte Segurantzak emandako informazioaren arabera.



**IKUSI DIRA** funtzionarioaren urteko ordainsariak eta hitzarmen bereziko egoeran dagoen kotizazioaren segurtasunaren kostuaren kalkulua, Aiarako Aholkularitzak kalkulatu du, eta hilean 1.011,56 euro dira hilean.

**IKUSI DA** Blanca Furundarena Udaetak programaren 2. artikuluan ezarritako baldintza betetzen duela. Aiarako Udalean zerbitzu aktiboa eman du, gutxienez 10 urtez, gertaera eragilea gertatu baino lehenagotik, bai eta azken 15 urteetan gutxienez 10 urtez zerbitzuak eman ditu era, aurkeztutako lan-bizitzaren txostenaren egiaztatzen duenez.

Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako ERABAKI hau onetsi dadin proposatu da:

**LEHENENGOA.-** Blanca Furundarena Udaetak aurkeztutako borondatezko uko egitea onestea, Udalaren funtzionario izateaz uzteko, Udalaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren 6. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz. Aiarako Udalean gauzatzen dituen zerbitzuak etenda geratzen dira erabaki honen bidez, eta langileari gizarte segurantzari baja ematea izapidetuko da.

**BIGARRENA.-** Udalaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren 6. artikuluari lotuta, 4. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, Blanca Furundarena Udaetari 59.214,59 euroko kalte-ordaina aitortzea, erretiro aurreratua hartu aurretik funtzionario izateari borondatez uko egiteagatik.

**HIRUGARRENA.-** Blanca Furundarena Udaetak, eskaera hau egitean, uko egiten dio ordaindutako beste edozein jarduerari, eta ekitaldi bakoitzaren hasieran Gizarte Segurantzari eta/edo Ogasunari dagokionez duen lan-egoerari buruzko txostena aurkeztu beharko du. Informazio hori aurkezteko betebeharra betetzen ez bada, onuradunak Udalari itzuli beharko dio ordaindutako zenbateko osoa. Txosten horiek aurkezteko betebeharra pizgarria kobratu eta ondorengo hamar urteetan mantenduko da; hori guztia Aiarako Udalaren Giza Baliabideak Arrazionalizatzeko Programaren 2. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Arespalditzan.- **ALKATEA.-** Sin.: Gentza Alamillo Udaeta jn.

**ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA**

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) hitza hartu du Blanca Furundarena Udaeta andreari urte hauetan guztietan udal honetan egindako lana aitortu eta eskerrak emateko.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**10.- EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako mozioa, iraunkortasun legea betetzeko udalek behar duten finantzaketaren ingurukoa.-** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio EH Bildu udal-taldeak aurkeztu duen mozioa, iraunkortasun legea betetzeko udalek behar duten finantzaketaren ingurukoa. Horrek honako hau dio:

***“ENERGIA IRAUNKORTASUN LEGEA BETETZEKO UDALEK BEHAR DUTEN  
FINANTZIOAREN INGURUKO MOZIOA.***

*2021eko martxoaren 1ean prentsan iragarri zenez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Gauzatu Energia programa martxan jarriko*



*du, besteak beste Udalek Euskadiko Energia Iraunkortasunari buruzko 4/2015 Legeak ezarritako energia planen inguruko betebeharretan diruz laguntzeko.*

*Programa honen bitartez Eusko Jaurlaritzak 100 milioi euro jarriko ditu udalen eskura, bi formularen bidez:*

*Bata, Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) udaberri honetan jaulkiko duen programa bat, 10 milioi euroko dirulaguntzekin, udalek eta tokiko erakundeek udalerrri bakoitzeko "osasun energetikoaren" egoerari buruzko auditoretzak egin ditzaten.*

*Bigarrena, "0" intereseko finantzaketa-lerroa, Finantzen Euskal Institutuak kudeatua, udalen auditoretzetan aurreikusten diren ekintzen inbertsioei aurre egiteko, eta efizientzia-maila eta energia garbiaren kontsumoa hobetzera bideratuta.*

*Datozen hamarkadan udalen jasangarritasun proiektu eta politikak erabakigarriak izango dira ingurumenaren zaintzan eta klima aldaketaren aurkako lanean. Zentzu honetan, Euskadiko Energia Iraunkortasunari buruzko 4/2015 Legeak udalei hainbat betebeharrak ezartzen dizkie (besteak beste instalazioen inbentarioa egitea, horien energia-kontsumoa adieraziz, eraikin eta instalazio guztiek energia elektrikoaren kontagailua izatea, 70 kW-tik gorako potentzia termikoa duten eraikinek dagokien ikuskaritza energetikoa izatea, urte anitzeko jarduera energetiko-ko planak diseinatzea, administrazioaren titulartasuneko eraikin guztiek eraikinen ziurtagiri energetikoa izatea, mugikortasun plan bat izatea eta energia kontsumoa murriztea).*

*Gainera, COVID-19aren pandemiak udalen finantzazioa zeharo murriztu du, eta hainbat udalek zailtasunak izango dituzte iraunkortasun politika sendoak egikaritzeko; beste batzuek ez dute behar besteko gaitasuna izango arlo honetan aurreikusita dituzten proiektuak gauzatzeko; eta baliteke ere udal batzuek maileguak jasotzeko aukerarik ere ez izatea.*

*Horregatik, Gauzatu Programaren baitan finkatzen diren bi formuletan aldaketa eman beharra dago: dirulaguntzen kopurua nabarmen gehituz.*

*Hori dela eta, Aiarako Udalak honako hau erabakitzen du:*

*1.- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari eskatzen diogu Gauzatu Programaren baitan jasotzen den dirulaguntzen kopurua handitu dezala 2021 ekitaldirako gutxienez 75 milioi €tara, udalek Euskadiko Energia Iraunkortasunari buruzko 4/2015 Legeak ezarritako betebeharrak gauzatzeko laguntzeko .*

*2.- Datozen ekitaldietan ere Euskadiko Energia Iraunkortasunari buruzko 4/2015 Legeak udalei ezarritako betebeharrak betetzeko nahikoa finantzazio bermatzen duten programa zein lan leerroak bermatu ditzala.*

*3.- Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari jakinaraziko zaio.*

### **MOCIÓN SOBRE LA FINANCIACIÓN QUE NECESITAN LOS AYUNTAMIENTOS PARA CUMPLIR LA LEY DE SOSTENIBILIDAD ENERGÉTICA.**

*Tal y como se anuncio en prensa el pasado 1 de marzo de 2021, el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente de! Gobierno Vasco va a poner en*





*marcha el programa "Gauzatu", entre otras cosas, para subvencionar a los Ayuntamientos en las obligaciones relativas a los planes energéticos establecidos por la Ley 4/2015 de Sostenibilidad Energética de Euskadi.*

*Con este programa, Gobierno Vasco va a poner 100 millones a disposición de los Ayuntamientos, mediante dos formulas:*

*Una, sería un programa que el Ente Vasco de la Energía (EVE) pondrá en marcha esta primavera con subvenciones por valor de 10 millones de € para que Ayuntamientos y Entidades Locales realicen auditorias sobre la "salud energética" en cada municipio.*

*La segunda, un línea de financiación a interés "0", gestionada por el Instituto Vasco de Finanzas, para que se pueda hacer frente a las inversiones de las acciones previstas en las auditorias municipales, y que estarán orientada a mejorar el nivel de eficiencia energética y el consumo de energía limpia.*

*En la próxima década los proyectos y políticas de sostenibilidad que lleven a cabo los Ayuntamientos serán decisivos en la protección del medio ambiente y en la lucha contra el cambio climático, En este sentido, la Ley 4/2015 de Sostenibilidad Energética de Euskadi determina una serie de obligaciones para los Ayuntamientos (entre otras, hacer un inventario de instalaciones, indicando su consumo energético, que todos los edificios e instalaciones dispongan de un contador de energía eléctrica, que los edificios de potencia térmica superior a 70 kW tengan la correspondiente inspección energética, que se diseñen planes energéticos plurianuales, que todos los edificios de titularidad administrativa dispongan de certificación energética, que dispongan de un plan de movilidad y que reduzcan el consumo energético ).*

*Además, la pandemia del COVID-19 ha reducido significativamente la financiación municipal, y algunos Ayuntamientos tendrán dificultades para poder desarrollar políticas de sostenibilidad solidas; otros no tendrán la capacidad suficiente para llevar a cabo los proyectos que tienen previstos en esta materia; y también es posible que algunos ayuntamientos ni siquiera puedan recibir préstamos,*

*Así, hay que establecer cambios en las dos fórmulas que se establecen dentro del Programa Gauzatu: incrementando sustancialmente el número de subvenciones.*

*Por todo ello, el Ayuntamiento de Ayala acuerda:*

*1.- Solicitar al Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco que incremente el importe de las subvenciones contempladas en el marco del Programa Gauzatu para el ejercicio 2021 hasta un mínimo de 75 millones de €, con el fin de contribuir a la ejecución por parte de los Ayuntamientos de las obligaciones impuestas por la Ley 4/2015, de Sostenibilidad Energética de Euskadi.*

*2.- Que garantice en los próximos ejercicios programas y líneas de trabajo que garanticen la financiación suficiente para cumplir con las obligaciones impuestas a los ayuntamientos por la Ley 4/20 J 5 de Sostenibilidad Energética de Euskadi.*

*3.- Comunicar el presente acuerdo al Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente del Gobierno Vasco”.*



Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak hartu du hitza, eta azaldu du, laburbilduz, bere mozioak proposatzen duena dela Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzaren zenbatekoa handitzea, energia-iraunkortasunaren arauditik eratorritako eta auditoretzaren ondoren sortutako betebeharrak betetzeko finantzaketa nahikoa bermatzeko, eta akordio hau Eusko Jaurlaritzako dagokion sailari jakinarazteko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du EAJ-PNV taldea mozio horren aurka agertuko dela, mozio alternatibo bat aurkeztu dutelako.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta AIARA BATUZ eta EH Bildu udal-taldeetako kideen aldeko botoarekin eta EAJ-PNV taldeko kideen aurkako botoarekin erabaki du ez onestea EH Bildu udal-taldeak aurkeztutako mozioa energia iraunkortasun legea betetzeko udalek behar duten finantzaketaren ingurukoa.

**11.- Euskadiko energia jasangarritasun 4/2019 legearen garapenaz ordezkatzeko zuzenketa EH Bilduk aurkeztutako mozioari, toki erakundeen aldetik.** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako ordezkatzeko zuzenketa, Euskadiko energia jasangarritasun 4/2019 legearen garapenaz EH Bilduk aurkeztutako mozioaren ingurukoa, toki erakundeen aldetik.

***“Euskadiko energia jasangarritasun 4/2019 legearen garapenaz ordezkatzeko zuzenketa EH Bilduk aurkeztutako mozioari, toki erakundeen aldetik.***

*Gentza Alamillo Udaetak, EAJk Aiarako Udalean duen taldeko bozeramaile denak, indarrean dagoen araudiaren argitan, Bilduk Euskadiko energia jasangarritasun 4/2019 legearen garapen-ari buruz egindako mozioari honako ORDEZKATZE ZUZENKETA hau aurkezten dio.*

### **ZIOEN AZALPENA**

*Eusko Jaurlaritzak hamarkadak daramatza energia eraginkortasunaren eta energia berriztagarrien aldeko planak garatzen. 2021. urteko ekitaldiari begira, zeregin hori era nabarmenean areagotu da; batez ere, Euskadiko Energia Jasangarritasun 4/2019 Legearen bultzadaren ondorioz. Eusko Jaurlaritzak 100 milioi euro jarriko ditu udalen eta toki erakundeen eskura, aipatutako legean ezarritako eskakizunak eta proiektuak betetze aldera.*

*Euskadiko Energia Jasangarritasun 4/2019 Legea betetzeak, errealitatea egokitzea eskatzen dituen erronketara hurbiltzeak inbertsio ahalegin handia ekarriko dute, toki erakundeen aldetik, are konplexuago dena, COVID-19 Pandemiak eragindako egoeraren ondorioz.*

*Eusko Jaurlaritzak, aurten, bi lankidetzeta-formula eratu ditu, erakunde publiko guztiak energia jasangarritasunaren inguruko adierazleak hobetzeko dituzten erronkei aurre egiteko, 2030. urtera begira:*

*1.- Energiaren Euskal Erakundeak aurten bertan, 2021ean, 10 milioi euroko dirulaguntza programa bat abiaraziko du, udalek eta toki erakundeek energia auditoretzak egin ditzaten euren udalerrietan, bertako energia egoera sakontasunez ezagutzeko asmoz.*



2.- *Energiaren Euskal Erakundeak 0 intereseko finantza lerro bat jarriko du martxan, auditoretzak aurreikusiko diren jardueren inbertsioak aurrera eramateko. “Gauzatu energia” izeneko finantza lerro horrek 90 milioi euroko aurrekontua izango du.*

*Aipatutako dirulaguntza eta finantza lerro horiez gain, badira ere lehendik bideratzen ari diren beste laguntza batzuk, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila eta Energiaren Euskal Erakundea energia eraginkortasuna eta energia berriztagarriak sustatzeari begira garatzen ari direnak, hala nola:*

- *Energia eraginkortasunaren aldeko etxebizitzaren birgaitzea laguntza programa: 25,1 M€, 2021-2022 ekitaldietarako*
- *Garraio eta mugikortasun efizientearen aldeko inbertsioak: 1,9 M€*
- *Toki administrazioan energia eraginkortasunaren eta eguzki termikoaren aldeko inbertsioak: 1,4 M€*
- *Biomasa energetikoki ustiatzeko instalazioetan inbertsioak: 1 M€*
- *Geotermia energetikoki ustiatzeko instalazioetan inbertsioak: 0,9 M€*
- *Autokontsumo elektrikorako energia berriztagarrien alorreko instalazioetan inbertsioak: 5,7 M€*
- *MOVES III Plana (birkargatzeko guneak, ibilgailu arinen erosketa...): 18 M€*

*Ekonomia eta energia arloko eraldaketa handi-handiek maila goreneko jardura estrategiko garrantzitsuak eskatuko dituztela jakitun, baita tokian tokiko egitasmo txikiagoak, EAJko Aiarako udal-taldeak, EH Bildu Taldeak aurkeztutako mozioaren ordezkotuzuzenketa hau aurkeztu du, toki-erakundeek Euskadiko jasangarritasun energetikoari buruzko 4/2019 Legea garatzeari dagokionez.*

## **ZUZENKETA**

1.- *Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari eskatzea toki erakundeekin lankidetzat eta laguntza areagotzeko eta sendotzeko, ahalik eta proiektu gehien suspertzeko xedez.*

2.- *Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari premiatzea “Gauzatu energia” programara bideratutako baliabideak euskal udalerrira guztietara erabiltzeko zuzenean helduko direla bermatzeko eta toki mailako ekimenak sustatzeari begira nahikoak izateko.*

3.- *Eusko Jaurlaritzari eskatzea energia berriztagarrien alorreko instalazio berriak sustatzen jarraitzeko.*

4.- *Lortutako edo adostutako akordioa dagokien erakundeei helaraztea.*

### **“Enmienda de sustitución a la moción presentada por EH Bildu sobre el desarrollo de la ley 4/2019 de sostenibilidad energética de Euskadi por parte de entidades locales**

*D Gentza Alamillo Udaeta., portavoz del Grupo Municipal de EAJ-PNV en el ayuntamiento de Ayala, al amparo del Reglamento vigente, presenta la siguiente ENMIENDA DE SUSTITUCIÓN a la Moción de BILDU sobre el desarrollo de la ley 4/2019 de sostenibilidad energética de Euskadi por parte de entidades locales.*



## **EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

*El Gobierno Vasco lleva décadas desarrollando planes de eficiencia energética e impulso a las energías renovables. En el ejercicio 2021, esa tarea se ha incrementado de manera exponencial, sobre todo con el impulso de la Ley 4/2019 de Sostenibilidad Energética de Euskadi. El Gobierno vasco pondrá 100 millones de euros a disposición de los Ayuntamientos y entidades locales con el objetivo de que se alcancen los proyectos encaminados a cumplir las exigencias de la citada Ley.*

*El cumplimiento de la Ley 4/2019 de Sostenibilidad Energética de Euskadi, los retos que presenta la adaptación de la realidad a sus exigencias supondrán un importante esfuerzo inversor, por parte de las entidades locales, en unos tiempos especialmente complicados debido a la situación de la pandemia del COVID-19.*

*El Gobierno Vasco ha articulado este año dos fórmulas de colaboración para alcanzar los retos a los que se enfrentan todas las instituciones públicas para mejorar sus indicadores de sostenibilidad energética con el año 2030 como horizonte:*

*1.- El Ente Vasco de la Energía activará este mismo año 2021 un programa de subvenciones de 10 millones de euros para la elaboración, por parte de los Ayuntamientos y entidades locales, de las correspondientes auditorías sobre el estado de cada municipio respecto a su “salud energética”.*

*2.- El Ente Vasco de la Energía activará una línea de financiación a interés 0 para hacer frente a las inversiones de las acciones que se prevean en las auditorías. Esa línea de financiación denominada “Gauzatu energía” está dotada con 90 millones de euros.*

*La subvención y la línea de financiación citadas anteriormente, se ven reforzadas por otras líneas de ayudas ya existentes, que se enmarcan en el impulso de la eficiencia energética y las energías renovables que tanto el Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, como el Ente Vasco de la Energía vienen desarrollando como:*

- *Programa de ayudas para rehabilitación viviendas eficiencia energética: 25,1 M€ para los ejercicios 2021-2022*
- *Inversiones en transporte y movilidad eficiente: 1,9 M€*
- *Inversiones en eficiencia energética y solar térmica en administración local: 1,4 M€*
- *Inversiones en instalaciones de aprovechamiento energético de la biomasa: 1 M€*
- *Inversiones en instalaciones de aprovechamiento geotérmico: 0,9 M€*
- *Inversiones en instalaciones de energías renovables para autoconsumo eléctrico: 5,7 M€*
- *Plan MOVES III (Puntos de recarga, compra de vehículos ligeros...): 18 M€*

*Consciente de que las grandes transformaciones socioeconómicas y energéticas van a requerir de actuaciones estratégicas y de gran envergadura, como proyectos más reducidos y locales, el Grupo municipal del EAJ PNV del Ayuntamiento de Ayala presenta la siguiente ENMIENDA DE SUSTITUCIÓN a la Moción presentada por el Grupo EH Bildu en relación con el desarrollo de la ley 4/2019 de sostenibilidad energética de Euskadi por parte de entidades locales*



## **ENMIENDA**

1.- *Solicitar al Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente intensifique la tarea de reforzar la colaboración y el acompañamiento a las entidades locales con el objetivo de reactivar el máximo número de proyectos posible.*

2.- *Instar al Departamento de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente a que garantice que los recursos destinados al programa "Gauzatu energia" lleguen de manera directa al conjunto de los municipios vascos y sean suficientes para impulsar iniciativas locales.*

3.- *Pedir al Gobierno Vasco que prosiga apostando por nuevas instalaciones de energías renovables.*

4.- *Trasladar el acuerdo alcanzado a las instituciones correspondientes.*

Aiaran, 2021 / 05 / 6

*Sin. / Fdo.:*

*Portavoz municipal de EAJ-PNV- EAJ-PNVren udal bozeramailea".*

Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak adierazi du zuzenketaren aurka bozkatuko dutela, ez daudelako ados EAJ-PNVren mozioaren 3. puntuarekin. Bertan, Eusko Jaurlaritzari energia berriztagarrien instalazio berriei jarraitzeko eskatzeaz hitz egiten da, eta uste dute gehitu egin behar zela instalazio berri horiek onetsiko den plangintza sektorialaren esparruan egitea eta ingurumen-araudia betetzea, arazo batzuk baitaude Araban haize-sorgailuekin.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du edozein instalaziotan, haize-sorgailuen instalazioa barne, administrazioak indarrean dagoen ingurumen-araudia bete behar duela.

Karmele Población Martínez (EH-BILDU) zinegotzi andreak esan du aurka bozkatu duela, uste baitu mozioan hizkera "gaseoso" erabiltzen dela eta ez direla inplikutzen.

Gentza Alamillo Udaeta alkate (EAJ-PNV) jaunak adierazi du EH Bilduk 75 milioi euro aipatzen dituenean, esan nahi du alde aurretiko azterketa bat egin dutela zenbateko hori zehazteko.

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak erantzun du EAJ-PNV udal-taldeak egin duen bezala.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du 10 milioiak egia direla.

Esku-hartze guztiak amaitu ondoren, EAJ-PNV udal-taldeko kideen aldeko botoarekin eta AIARA BATUZ eta EH Bildu udal-taldeetako kideen aurkako botoarekin erabaki da erabaki da EAJ-PNV udal-taldeak aurkeztutako ordezkatzeko zuzenketaren onestea, Euskadiko energia jasangarritasun 4/2019 legearen garapenez EH Bilduk aurkeztutako mozioaren ingurukoa, toki erakunde aldetik.



**12.- Berri ematea honako hauen inguruan: Kontaketa aktak, gastuen eta diru-sarreraren balantzea, kartillen egoera eta 2021eko urtarrileko, otsaileko eta martxoko kreditu-aldaketak.**- Jarraian, kontaketa aktei, gastuen eta diru-sarreraren balantzeari, banku-kontuen egoerari eta 2021eko urtarrileko, otsaileko eta martxoko kreditu-aldaketei buruzko kontabilitate-agirien berri eman zaio Udalbatzari.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**13.- Alkatetzaren Dekretuen berri ematea.**- Ondoren, Alkatetzaren 2021/196 eta 2021/256 arteko dekretuen berri eman zaio Udalbatzari, biak barne. Horren xedea honako hau da, laburbilduz:

**“ALKATETZA DEKRETUEN ZERRENDA.-**

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/196.- EDP Clientes SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2021.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/197.- Baser Comercializadora de Ref. SA. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2021.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/198.- EDP Comercializadora SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2021.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/199.- Total Gas y Electricidad España SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 1/2021.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/200.- Total Gas y Electricidad España SAU. Tokiko jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2018 eta 2020.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/201.- L.A.B.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/202.- Aranzadi Zientzia Elkarte. Frogatutzat jotzea 2020ko dirulaguntzaren justifikazioaren ez-betetze partziala, eta diru-laguntza horren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/203.- Baimena ematea Aiarako Udaleko idazkari kontu-hartzailea titularrari, Muskizko Udaleko diruzaintzako lanpostua zerbitzu-eginkizunen bidez izendatzeko, 2021/04/27tik 2021/06/24ra.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/204.- BELAKO LANAK SL.- Aiarako errepide nagusietarako bideen eta loturen garbiketa mekanikorako zerbitzu-kontratua luzatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/205.- J.I.A.G.- Erretes Lantenon etxebizitza bat eraikitzeagatik hirigintza-ordena leheneratzeko espedientearen ebazpena.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2021/206.- C.S.M. TMIZ ordaintzetik salbustea minusbaliotasuna egiaztatzeagatik.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2021/207.- J.M.F.D. 2021eko TMIZ ordainagiriaren zati bat itzultzea, ibilgailuaren behin betiko bajagatik.

ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/208.- Aiarako Kuadrilla. Ekarpene ekonomikoa gastu orokorren eta bestelako gastuengatik, 2021eko 2. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/209.- E.K.E. 2021ean 20 KORRIKA egiteko emandako dirulaguntza baliogabetzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/210.- L.G.F.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/211.- Acciona Green Energy Developments SLU. Tokiko



jabari publikoaren aprobetxamendu-tasa, 2021eko 1. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/212.- Goiener S. Coop.- Jabari publikoaren okupazio-tasaren likidazioa, 2021eko 1. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/213.- Elkarkidetzaren Pentsioak.- Likidazio-faktura ordainketa onestea, 2021eko apirila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/214.- Langileen eta alkatearen nominei dagokien hileroko txostena onestea, 2021eko apirila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2020/215.- Udalerriko alderdi politikoei egindako ekarpen ekonomikoa, 2021eko apirila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/216.- A.A.H.- Zuhatzako etxebizitzan teila ordeztzeko obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/217.- J.O.A.- Luiaondon igerilekua jartzeko obretarako udal-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/218.- G.O.T.- Etxegoien etxebizitza eraikitze obra hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/219.- G.O.T.- Etxegoien etxebizitza eraikitze obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/220.- AFA, Ingurumen eta Hirigintza Saila.- Aiara udalerriko inbentario, kontu-ikuskaritza, kalifikazio eta jarduketa energetikoaren planaren proiektua garatzeko dirulaguntza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/221.- AFA. PFEZren atxikipenak ordaintzea 2021eko lehen hiruhilekoan.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/222.- T.G. Gizarte-segurantza. 2021eko martxoko kuotaren ekarpena.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/223.- Etxaurren Ikastola. Guraso Elkarte.- Talde psikopedagogikoaren eta bi urtekoen gelako laguntzailearen nominak ordaintzea, 2021eko apirila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/224.- M.I.G.F.- Aparkatzeko txartela ematea, iraungitzeagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/225.- Ezkontza zibila egiteko Alkatetzaren eskuduntzak eskuordetzan emateko Dekretua.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/226.- M.E.A.- Udal-artxiboko espediente eta dokumentuetarako sarbidea eta kontsulta.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/227.- V.G.M.- Jabetza Erregistroan Olabazarreko eraikuntzaren erabilerari buruzko orri-bazterreko idatzoharra egiteko behar den ziurtagiria ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/228.- V.G.M.- Olabazarren etxebizitza lehen aldiz okupatzeko behin betiko lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/229.- J.A. de Madaria.- G.R. fidantza eskatzea hobi septikoa berritzeko obrarako.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/230.- A.A.C.C.- A – 4.1. motako arma-txartela ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/231.- F.J.O.- Hirigintzako espedientei buruzko



informazioa eskuratzeko eskaera ez onestea, 2020. urtea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/232.- A.V.R.- Luiaondon kanpoko aroztegia etxebizitzan ordezteko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/233.- Menagarai-Boetegiko bide partikularreko jabeen erkidegoa.- Bidean dagoen kutxatila konpontzeko obretarako udal-lizentziaren emakida.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/234.- T.M.R.- Luiaondoko etxebizitzan garaje-atea irekitzeko udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/235.- MT.S.G.- Lantenoko etxebizitzan terraza konpontzeko obra-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/236.- Añesko Administrazio Batzordea.- Añesko hobi septikoa berritzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/237.- R.G.S.- Luiaondoko etxebizitzan leihoak aldatzeko obretarako udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/238.- R.G.S.- Luiaondoko etxebizitzan bainugela berritzeko obretarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/239.- F.U.U.- Menagarain egurrezko estalpea eraikitzeko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/240.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.- Menagarai-Beotegiko uraren altako sarearen zati bat konpontzeko obrako hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA.- 2021/241.- Udalkideei egindako ekarpen ekonomikoa, 2021eko apirila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/242.- L.A.V.- Zuhatzako etxebizitza estalita birgaitzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/243.- Zorroza Gestión SL enpresak jarritako 154/2021 administrazioarekiko auzi-errekurtsioan pertsonatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/244.- Lanteno Haraneko Elkarte Kultural Artistikoa.- 2020ko dirulaguntza itzultzeko prozedura hastea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/245.- M.L.A.G.- Aparkatzeko txartela ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/246.- J.M.G.A.- Aparkatzeko txartela ematea, iraungitzeagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/247.- M.M.C.- Aparkatzeko txartela ematea, iraungitzeagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/248.- N.B.R.- Luiaondoko Restergo kaleko 7, 2B etxebizitza lehen aldiz okupatzeko lizentzia ematea.

ALKATETZAREN DEKRETUA – 2021/249.- L.G.F.- TMIZ ordaintzetik salbustea minusbaliotasuna egiaztatzeagatik.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/250.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzordea.- G.R. fidantza eskatzea Beotegin bolatokia birgaitzeko obrarako.

ALKATETZA DEKRETUA - 2021/251.- N.L.E.- IZORIAN etxebizitza lehen aldiz okupatzeko behin betiko lizentzia ematea.





ALKATETZA DEKRETUA – 2021/252.- Ezkontza zibila egiteko Alkatetzaren eskuduntzak eskuordetzan emateko Dekretua.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/253.- A.J.A.G.A.- Lantenoko 2. poligonoko 1738. eta 1739. partzelen bereizketa formalizatzeko dokumentu publikoa aurkezteko luzapena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/254.- Bilboko notariotza.- T.M.R.ren izenean dagoen finkaren gehiegizko edukieraren inskripzioari buruzko borondatezko jurisdikzio-espeditari buruzko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/255.- A.J.A.G.A.- Lantenoko partzelaren bereizketa formalizatzeko dokumentu publikoa aurkezteko epearen luzapena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2021/256.- F/2021/4 zerrendako hainbat fakturen kontularitza-zerrenda onestea.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak hartu du hitza eta 2021/202 Dekretuaren inguruan galdetu du, eta dirulaguntzaren zati bat zergatik itzuli behar den galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du hitzarmen bat onesten denean diru-kopuru bat ezartzen dela, eta kopuru horren % 80a aurreratzen dela. Azkenean, proiektu osoa gauzatu ahal izan dutenez, zati proportzionala itzuli behar dute.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak galdetu du ea zer hirigintza-espeditari egiten dio erreferentzia 2021/205 Dekretuak.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du hiri-eremutik kanpo eraikitako Erretes de Lantenoko etxebizitza baten hirigintza-legalizazioko espeditari bati eragiten diola erreferentzia. Gaineratu du administrazio-prozedurak legeztatzearen bidetik jarraitzen duela eta jabea bide horretara sartzen ez bada, eraispen-espeditaria egin beharko dela.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak adierazi du, 2021/209 Dekretuari dagokionez, baliogabetzea dela Korrika ez delako egin. Galdetu du ea urtean zehar Korrikarekin lotutako jardueraren bat egingo balitz, Udalak Herri urratserako erabilitako protokolo bera eramango lukeen.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak baietz erantzun du, baldin eta diruz laguntzeko moduko partida eta jarduera badago.

Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak Zorrotzarekin duen auziaz galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak gogorarazi du Zorrotzak errekurtsio bat jarri duela zehapen-espeditari eta dagozkion hertsapen-isunei dagokienez; beraz, udalak udalerraren interesak defendatuko ditu epaitegian.

Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak 2021/231 Dekretuari buruz galdetu du. Horren bidez, espeditariaren informazio publikoa eskuratzeko eskaera ukatu da.



Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du urte batean emandako lizentzia guztiei buruzko informazioa eskatzen zuen pertsona bat zela, eta, beraz, zer informazio eskatzen duen zehaztu beharko duela.

**14.- Gai-zerrendatik kanpoko gaiak.-** Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak Udalbatzari jakinarazi dio bilkura honetako gai-zerrendan, premiazko bidetik puntu bat sartu behar dela, kreditu gehigarriaren 3/2021 espedientearen inguruan kontu-emateari buruz eta idazkari kontu-hartzailearen txostenari buruz, aurrekontu-egonkortasuna ez-betetzearen ondorioetarako. Alkateak adierazi du, azkenean, aurten JOLAS TXOKOAK egitea erabaki dela, baina kostua aztertu ondoren, egungo egoeraren arabera, beharrezkoa dela udal-aurrekontuan zegoen esleipena handitzea, eta horri erantzuten dio espediente honek. Gaineratu du udarako bakarrik izango dela kontratua, egoerak zer bilakaera izango duen ikusteko zain.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, puntu hau gai-zerrendan sartzea.

**14.1- Kreditu gehigarriaren 3/2021 espedientearen berri ematea, bai eta Idazkari Kontu-hartzailetzaren txostena ere, aurrekontu-egonkortasuna ez-betetzearen ondorioetarako.-** Jarraian, Udalbatzari kreditu gehigarriaren 3. espedientearen berri eman zaio. Espediente hori Diruzaintzako gerakin likidoarekin finantzatu da eta Alkatearen 2021/276 Dekretuaren bidez onetsi da; horrek honela dio:

**“ALKATETZA DEKRETUA**

**IKUSI DA.-** Diruzaintzako gerakinaren zati bat 2020 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioak ekarri duen gastu orokorretarako erabiltzeko beharra, 2021era luzatutako 2020ko aurrekontuan gastu-partida batzuk osatzeko edo sortzeko, saihestezinak diren eta 2021eko aurrekontua onetsi arte itxaron ezin duten ordainketak egiteko.

**AINTZAT HARTU DA.-** Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean xedatutakoa.

Alkatetza honek honako hau **EBATZI DU**:

**Lehenengoa.-** Ondoren zerrendatzen diren kreditu gehigarriak onestea:

<b><u>PARTIDA</u></b>	<b><u>IZENDAPENA</u></b>	<b><u>ZENBATEKOA/€</u></b>
337.227040	JOLAS TXOKOEN KUDEAKETA	6.168,62 €.
	<b>GUZTIRA .....</b>	<b>6.168,62 €.</b>

**GUZTIRA: 6.168,62 euro**



Zenbateko hori jarraian zerrendatzen diren baliabideek finantzatzeko dute, espedientea berdinduta eta defizitik gabe aurkezteko moduan:

B. Handitu beharreko diru-sarrereren partidak edo erabili beharreko Diruzaintzako gerakina:

<u><b>DIRU-SARREREN PARTIDA</b></u>	<u><b>IZENDAPENA</b></u>	<u><b>ZENBATEKOA/€</b></u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA	6.168,62 €.
	<b>GUZTIRA .....</b>	<b>6.168,62 €.</b>

Onetsitako kreditu gehigarrien guztizkoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrereren guztizkoaren berdina da.

**Bigarrena.-** Kontu-hartzaitzak erakundearen aurrekontuko gastuen egoera-orrian aldaketak egitea, berehalako ondorioekin.

**Hirugarrena.-** Dekretu honen berri ematea Udalbatzari, egiten den lehenengo bilkuran.

ALKATE-UDALBURUA, Nire aurrean, IDAZKARIA,  
Sin.: Gentza Alamillo Udaeta. Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.

BEHIN-BEHINEKO DIRUZAINA,  
Sin.: Clara Furundarena Udaeta.

Elektronikoki sinatutako dokumentua

Era berean, Kontu-hartzaitzaren 2021eko maiatzaren 19ko txostenaren berri eman zaio Udalbatzari, Diruzaintzako gerakina kreditu gehigarri hori finantzatzeko erabiltzeagatik aurrekontu-egonkortasuna ez-betetzeari buruzkoa. Txostena horrek honako hau dio:

### **“ESKU-HARTZE TXOSTENA**

**GAIA:** Gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakinaren konturako aurrekontu-aldaketa.

Aiarako Udaleko Kontu-hartzaitzako karguari datxekion eginkizunetan oinarrituta, eta kontuan hartuta Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak Diruzaintzako gerakinaren erabileran egindako aldaketak (17/2014 Foru Arauak aldatu zuen arau hori), gerakinaren kargurako kreditu-aldaketa onartu ahal izateko beharrezkoa izango da Kontu-hartzaitzako txosten bat jakinaraztea Udalbatzari, egonkortasun-helburua ez dela bete egiaztatzeko. Txosten hau eginda, eta bi eranskin ditu:



- *I. eranskina: gerakina erabiltzeko proposamena, kreditu desberdinak gaitzeko.*
- *II. eranskina: Kontu-hartzaitzaren txostena, Diruzaintzako gerakina duten gastuak finantzatzeko egonkortasuna betetzeko.*

**I. ERANSKINA: GERAKINA ERABILTZEKO PROPOSAMENA**

*2020 LIKIDAZIOAREN GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA, ESPEDIENTE HONEN AURRETIK GASTATU GABEA: 366.935,12 €.*

***ERABILTZEKO PROPOSAMENA: 6.168,62 €.***

*Honako aurrekontu-aplikazio hauek sortzeko:*

<b><i>PARTIDA</i></b>	<b><i>IZENDAPENA</i></b>	<b><i>ZENBATEKOA/€</i></b>
<i>337.227040</i>	<i>JOLAS TXOKOEN KUDEAKETA</i>	<i>6.168,62 €.</i>

***ZENBATEKOA GUZTIRA: 6.168,62 €.***

***II. ERANSKINA: KONTU-HARTZAITZAREN TXOSTENA, EGONKONTASUNA  
EZ BETETZEAREN ONDORIOETARAKO***

***I. TXOSTENAREN OINARRIA***

*Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan, aurrekontu-egonkortasunaren helburua, zor publikoaren helburua edo gastu-araua betetzen ez badira, Administrazio ez-betetzailleak ekonomia- eta finantza-plan bat egingo du, abian den urtean eta hurrengoan helburuak edo gastu-araua bete ahal izateko.*

*Bestalde, Foru Arau beraren 7.3 artikuluan ezartzen duenez, aurrekontu-egonkortasunaren helburua ez betetzearen arrazoa Diruzaintzako gerakina duten gastuak finantzatzea bada, ekonomia- eta finantza-planaren ordeztu, Udalbatzari jakinaraziko zaio Kontu-hartzaitzaren eginkizunak betetzen dituen organoaren txostena, eta egoera hori egiaztatuko da. Horrekin batera, toki-korporazioaren finantza-iraunkortasunaren azterketa eta ebaluazioa egingo da, eta, gutxienez, honako hauek jasoko ditu:*

*a) Erakundearen eta haren mendeko erakunde eta organismoen aurrekontu-egonkortasuneko helburuak.*

*b) Diru-sarreraren eta gastuen partida nagusien proiektzioak, joera-bilakaera, hau da, aldatu behar ez diren politikak, eta aztertutako aldirako aurreikusitako neurrien eragina kontuan hartuta.*



c) Diru-sarreraren eta gastuen proiektzioak zein kasu nagusitan oinarrituko diren.

d) Aurrekontu- eta finantza-egoerak Diruzaintzako gerakina agortzen den unean.

e) Hala badagokio, inbertsioaren funtzionamenduak gastu arruntean izango duen eragina.

*Txosten hori kreditua aldatzeko espedientearen parte izango da.*

*Osoko bilkuraren akta, esku hartzeko organoaren txostenarekin eta euskarri gisa balio duen gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundian toki-erakundearen arloan eskumen duen sailari bidaliko zaio. Sail horrek, 30 eguneko epean, beharrezkoa den informazio gehigarria eskatu ahal izango du, bai eta neurri osagarriak hartzea ere; bestean beste, Plan ekonomiko-finantzario bat egitea, toki-erakundearen finantza-iraunkortasuna bermatzeko. Epe hori igarota Arabako Foru Aldundiak ez badu berariazko ebazpenik eman, espedientea izapidetzen jarraitu ahal izango da.*

### **EREMU SUBJEKTIBOA:**

*Txosten honen bidez, Aiarako Udalaren Diruzaintzako gerakina erabiliz, aurrekontu-aldaketaren finantzaketan eragindako ezegonkortasun-egoera aztertu nahi da. Txosten hau espediente horren parte da.*

### **HELBURUAK:**

*Proposatutako aurrekontu-aldaketa Diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatzeak egonkortasun-printzipioa hausten du, baina ez-betetze hori ez da egiturazkoa, egoeraren araberakoa baizik.*

*Horretarako, aurrekontu-magnitudeak aztertu behar dira. Txosten honen helburua honako hauek egiaztatzea da:*

- Aurrezki garbi positiboa
- Diruzaintzako gerakin positiboa
- Zorpetze finkatuaren maila ekitaldi bakoitzean ezarritako mugak baino txikiagoa
- Aurrekontu-egonkortasun finkatua superabitarekin edo finantzaketa-gaitasunarekin (SEC terminoetan)
- Gastu-araua betetzea

*Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7. artikulua 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan, txostena honela egituratuko da:*

**1.- Egungo egoeraren diagnostikoa: erakundearen aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzen diren edo ez aztertuko da.**

**2.- Gastuen eta diru-sarreraren egoeren proiektzioak.**

**3.- Inbertsioaren funtzionamenduak gastu arruntean izango duen eragina.**



## **II. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA: AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN HELBURUAK**

Abenduaren 9ko 641/2020 Foru Gobernu Kontseiluaren erabakia aipatu behar dugu. Horren arabera, Arabako toki-erakundeen zerga-arauen aplikazioa eten egin da, 2020rako eta 2021erako, ezohiko izaerarekin eta ondorio eskusiboekin. Horrek esan nahi du egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak indarrrik gabe uztea eta gastu-araua ez aplikatzea aipatutako urteetan.

Hala ere, informazioari dagokionez, 2020 ekitaldiari dagokion onetsitako azken likidazioan lortutako datuetatik, honako hauek nabarmentzen ditugu:

<b>MAGNITUDEA</b>	<b>ZENBATEK OA</b>	<b>BETETZEA/EZ BETETZEA</b>
<i>Aurrezki garbi doitua</i>	<b>467.891,52€</b>	<b>POSITIBOA</b>
<i>Gastu orokorretarako Diruzaintzako gerakina</i>	<b>590.779,40 €</b>	<b>POSITIBOA</b>
<i>Aurrekontu-emaitza</i>	<b>374.781,68 €</b>	<b>POSITIBOA</b>
<i>Zorpetze-maila</i>	<b>0</b>	
<i>Aurrekontu-egonkortasuna</i>	<b>350.068,98 €</b>	<b>BETETZEA</b>
<i>Gastu-araua</i>	<b>-307.315,42 €</b>	<b>-% - 14ko BETETZEA</b>

## **III. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOEREN PROIEKZIOAK**

Epe horretarako Plan Ekonomiko-finantzarioan zifrak proiektatzea ahalbidetuko diguten aldagaiak eta neurriak zehaztasunez definitzeko, balizko EGOERA hau ezartzen da:

- Abiapuntua egoera ekonomikoa mantentzea da, baina oso zuhurrak izan behar dugu jarduketan, egoera ekonomiko ahulean baitaude eragile ekonomikoak, eta horrek eragina izan lezake Udalak jasotzen dituen diru-sarreretan, bereziki Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsan parte hartzeagatik lortutakoetan.
- Gastuei dagokienez, arlo horretako murrizketak mantentzetik abiatzen gara, bai langileen gastuetarako, bai bestelako gastuetarako, Estatuko aurrekontu orokorren legearen ondorioz.

Ekitaldi honetan, 2020an bezala, abenduaren 9ko 641/2020 Foru Gobernu Kontseiluaren erabakiz Arabako toki-erakundeen zerga-arauen aplikazioa eten egin da, 2020rako eta 2021erako, ezohiko izaerarekin eta ondorio eskusiboekin. Horrek esan nahi du egonkortasuneko eta zor publikoko helburuak indarrrik gabe uztea eta gastu-araua ez aplikatzea aipatutako urteetan. Hala ere, eta 2021 ekitaldirako indarraldiarekin, Arabako toki-erakundeentzako gehieneko gutxi gorabeherako ezegonkortasun-tasa bat adostu da, Kontuen Europako Sistemaren arabera kalkulatuta, 2021erako Toki Erakundeak Finantzatzeko Foru Funtsean zuen hasierako behin betiko partaidetzaren eta 2020 ekitaldirako Funtsean zuen hasierako behin betiko partaidetzaren arteko aldearen baliokidea. Azken hori Foru



*Gobernuaren Kontseiluaren apirilaren 21eko 186/2020 Erabakiaren bidez onetsi zen.*

### **MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA**

*Adierazten diren ekitaldietan magnitudeen bilakaera, likidazioaren ondorioz, honako hauek dira:*

<b>HELBURUAK</b>	<b>2.019</b>	<b>2.020</b>
<i>Aurrekontu-egonkortasuna</i>	305.675,20	350.068,98
<i>Egonkortasunaren/Sarrera ez-finantzarioen %</i>	12,75 %	14,64 %
<i>Gastu-araua</i>	20.388,08	-307.315,42
<i>Zorpetzea</i>	0	0
<i>Aurrezki garbi doitua</i>	361.604,53	467.891,52
<i>Aurrezki garbiaren/Sarrera arrunten %</i>	15,56 %	19,57 %
<b>DIRUZAINZAKO GERAKINA</b>	590.384,93	590.779,40

#### **IV. AURREKONTU- ETA FINANTZA-EGOERAK DIRUZAINZAKO GERAKINA AGORTZEN DEN UNEAN**

##### **III-C.1 DIRUZAINZAKO GERAKINA**

*Diruzaintzako gerakin positiboak erakundearen epe laburreko likidezia metatua islatzen du, denboraren une jakin batean, eta eskuragarri dago etorkizun hurbilean gastua finantzatzeko.*

##### **Gastu orokorretarako doitutarako Diruzaintzako gerakina**

*Gastu orokorretarako gerakina bat dator aurrekontuan aplikatzeko dauden hartzekodunen datuekin eta ordaintzeke dauden diru-sarreraren itzulketekin; horrek magnitude horren egoeraren irudi errealagoa ematen digu. Magnitude horrek toki-erakundearen epe laburreko likidezia errealari buruzko informazioa eskaintzen digu.*

##### **III-C.2 AURREZKI GARBIA**

*Aurrezki garbiak Udaltzatzen zorpetzeko duen ahalmenaren berri ematen digu. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du epe luzeko mailegu-eragiketa berriei aurre egiteko gaitasunik. Aurrezki garbia positiboa bada, epe luzeko mailegu-eragiketa berriei aurre egiteko gaitasunari buruzko informazioa emango digu, zenbateko eta zer baldintzatan hitzartu daitezkeen jakin arte. Dena den, erakundearen zorpetze-ahalmenari buruzko informazio zehatzagoa lortzeko, Foru Arauan ezarritakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa doitu egin beharko litzateke, eta, horretarako, ezohiko izaera duten eta errepikakorrek ez diren diru-sarrerak kendu beharko lirateke.*

##### **III-C.3 FINANTZA-ERAKUNDEEKIKO ZORRA**



*Zor bizia adierazle garrantzitsua da erakundearen finantza-kaudimena ebaluatzeko. Kaudimen-arazoak gehiegizko zorpetzearen ondorioz izan daitezke, eta horrek finantza-karga handitzea eragiten du; izan ere, gainerako gastu arruntari gehituta, ezinezkoa da erakundearen diru-sarrera arruntek xurgatzea, eta, ondorioz, aurrezki garbi negatiboa izatea.*

### **III-C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA**

*Aurrekontu-egonkortasunak erakundearen finantzaketa-ahalmenaren/beharraren berri ematen digu, eta horrek, zeharka, zorpetzea urtero amortizatzen den kopurutik gora handitzea eragiten du (SEC 95 terminoetan kalkulatuta). Erakundeak finantzatzeko beharra badu (gastu ez-finantzarioak diru-sarrera ez-finantzarioak baino handiagoak dira), horrek esan nahi du erakundeak kanpoko finantzaketa (zorpetzea) behar duela gastuei aurre egiteko.*

*Erakundeak finantzatzeko gaitasuna badu (gastu ez-finantzarioak diru-sarrera ez-finantzarioak baino txikiagoak dira), erakundeak zorpetzeari aurre egiteko duen marjina adierazten du.*

### **III-C.5 GASTU-ARAU**

*Gastu-arauak arau fiskal bat ezartzen du, eta horren helburua da gastu konputagarria mugatzea, ekitaldi ekonomiko batetik bestera aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onetsitako ehunekoa baino ez hazteko, eta, horrela, aurrezki publiko handiagoa lortzeko, gastu-gehikuntzari oztopo bat jarritz, diru-bilketa handitzeko neurri osagarriekin batera joango ez dena.*

### **III-D. MAGNITUDEEN BILAKAERAREN ONDORIOAK**

*Gastuen eta diru-sarreraren egoera-orrietako kapituluetan erabilitako datuen arabera, Diruzaintzako gerakinarekin finantzatutako aurrekontu-aldaketaren finantzaketak ez du esan nahi erakunde horrek egiturazko desoreka duenik, baizik eta egoeraren araberako desoreka, eta urtebeteko epean ezarritako helburuak betetzen dira berrito, Plan ekonomiko-finantzarioa egiteko beharrik gabe.*

## **V. INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK GASTU ARRUNTEAN IZANGO DUEN ERAGINA**

*Erabilitako proiektioetatik, aurrezki korrante garbi positiboa kalkulatzen da; beraz, kreditu-aldaketa horren ondorioz finantzatu beharreko gastuaren (edo inbertsioaren) ondorioz etorkizunean sor litekeen gastu arrunta erakundeak sortutako diru-sarrera arruntek hartu ahal izango dute bere gain. Era berean, zorpetze-ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuaren azpitik dago (ez dago zorpetzerik); beraz, bi datuak batuta, ondoriozta daiteke ez dela konprometitzen haren etorkizuneko finantza-iraunkortasuna.*

*Gainera, kontuan hartu behar da proposatutako aldaketek ez dutela etorkizuneko ekitaldietan gastu arrunta nabarmen handituko.*

*Txostena kreditua aldatzeko espedientearen parte izango da.*





*Osoko bilkuraren akta, txostenarekin eta euskarri gisa balio duen gainerako dokumentazioarekin batera, Arabako Foru Aldundian toki-erakundeen arloan eskumen duen sailari bidaliko zaio. Sail horrek, 30 eguneko epean, beharrezkoa den informazio gehigarria eskatu ahal izango du, bai eta neurri osagarriak hartzea ere; bestean beste, plan ekonomiko-finantzario bat egitea, toki-erakundeen finantza-iraunkortasuna bermatzeko.*

*Arespalditzan.-*

*IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA.- Sin.: Carmen Rojo Pitillas*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua*

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

### **15.- Eskaerak eta galderak.-**

**Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak** galdera edo eskaera hauek egin ditu:

- Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak hartu du hitza Marian Mendiguren (EH Bildu) zinegotzi andreaken esku-hartzearen harira, hark ere talde politikoen arteko komunikazio handiagoa eskatzen du. Adierazi du, adibidez, lehiaketaren kasuan, Administrazio Batzordeei apirilaren 23an jakinarazi zietela, eta jasota zegoen Aiarako Udalak laguntzen zuela, eta Lantenoko Batzordeak maiatzaren 6an eman zuten baimena.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du gauza bat del Administrazio Batzordearen baimena, eta beste gauza bat dirulaguntza emateko behar den diru-sarreraren eta gastuen proiektua.

- Iratxe Parro Uzquiano (AIARA BATUZ) zinegotzi andreak eskerrak eta bere desiorik onenak eman dizkio Blanca Furundarena funtzionario andreaki.
- Aipatu du, halaber, igerilekuen bandoan ez del adierazten ekaineko ordutegia.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du bandoa iazkotik kopiatu dela, eta horregatik ez dela agertzen, zuzendu egingo da hori.

- Azkenik, eskatu du, erakunderen batetik politikariei zuzendutako tailer edo jarduera baterako gonbidapenen bat iritsiko balitz, hori helarazteko.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du gonbidapen gehienak Alkatetzari zuzenduta daudela.

**Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak** galdera edo eskaera hauek egin ditu:

- Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak adierazi du Koldo Mendioroz Goldaraz (EH Bildu) zinegotzi jaunak ezin izan duela osoko bilkura honen hasieratik esku hartu, ezagutzen ez den arazo tekniko batengatik. Bere ustez, zinegotzi guztiek izan



beharko lukete bilkuretan parte hartzeko eta esku hartzeko aukera, eta, batzordeak aurrez aurrekoak badira, osoko bilkurak ere horrela egin litezke, eskatzen duten moduan, ez baita jende asko joaten.

- Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du espero duela irailetik aurrera aurrez aurrezko osoko bilkurak berriro egitea, osasun-egoerak hobera egiten jarraitzen badu.

Hala ere, Udala eratzen denean, talde guztiek bozeramaile bat izendatu behar dutela adierazi du, eta bozeramaile horrek bete behar duela eginkizun hori.

- Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak hartu du hitza osoko bilkurari ematen zaion informazioari dagokionez adierazteko, askotan, beste bide batzuen bidez izaten dutela hartutako erabakien berri, eta horiek ez Batzordean landu, adibidez, igerilekuen irekiera-data.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du igerilekuen irekiera-datak igerilekuak kudeatzen dituen enpresarekin egindako kontratuan jasotakoak direla.

- Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak Markjanean kontrol arkeologiko bat egiteari buruz irakurri duen zerbaiti buruz galdetu du.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du Nerbioi Garaiko kolektoreen proiektuaren barruan Nerbioi ibaitik igarotzen diren zubi batzuk inplikaturik daudela, eta, horregatik, arkeologo batek zubi horiek garbitzeko eskatu duela. Beraz, Urari bidali zaio, baimena eska dezan.

- Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak galdetu du ea berririk dagoen Zuhatzako plan partzialaren inguruan espero den txostenari buruz.  
Adierazi du arazoa gero eta handiagoa dela.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du asmoa dela datorren astean berriro deitzea, dokumentua baduten ikusteko eta datorren hileko Batzordera eraman ahal izateko.

**Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak** galdera edo eskaera hauek egin ditu:

- Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak esan du apirilko Batzordean adierazi zela arkitektoarekin hitz egingo zela Garabillaren gaiari buruz, eta arkitektoa haiekin harremanetan jarriko zela, baina ez dela hala izan, eta gai horren egoeraren berri emateko eskatu du.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailari espedientearen izapidetze-egoerari buruzko informazioa eskatu zaiola.



- Alkateak talde politiko guztiek bozeramaile bat izendatu behar dutela dioen oharrari dagokionez, Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak adierazi du talde politiko bakoitzak bere lan egiteko modua duela.

Udalak osoko bilkura telematikoki egitea erabakitzen duenean, parte-hartzaile guztiek esku hartzeko ahalmena dutela bermatu beharko litzatekeela gaineratu du.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak erantzun du Udalak ezin duela bermatu intzidentzia teknikorik ez dagoela, eta talde politikoetan bozeramailea dagoela azpimarratu du. Gaineratu du ez dela sartuko talde politiko bakoitza nola antolatzen den, baina adierazi du inoiz ez direla mugatu ezein udalkideek osoko bilkuran egindako esku-hartzeak.

Karmele Población Martínez (EH Bildu) zinegotzi andreak adierazi du alkate jauna, bere esku-hartzearekin, bai ari dela sartzten nola antolatzen den talde bakoitza. Bere ustez, alderdi guztiek parte hartzeko aukera izan beharko lukete, eta alderdi bakoitza modu batera antolatzen dela. Gaineratu du osoko bilkurara ari dela joaten Osoko Bilkuren Aretotik; izan ere, etxetik ez du konexio nahikorik banda zabalaren hedapenaren arazoa konpontzeko, arrakastarik gabe.

- Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak esku hartu du otsailean izandako istripuari buruz hitz egiteko, langile bat hil baitzen. Haiiek monolito bat jartzeko eskatu zuten, eta galdetu du ea erabaki den zer eta non jarri Aiaraldeko lan-istripuen biktimak omentzeko, iazko irailean adierazi zen bezala.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak adierazi du asmoa ez dela ezer jartzea, ekitaldi bat egitea baizik, eta hurrengo batzordeetan aurkeztuko dela, uda ostean egin dadin.

- Marian Mendiguren Mendibil (EH Bildu) zinegotzi andreak gaineratu du bere alderdiak bere desiorik onenak eman dizkiola ere Blanca Furundarena funtzionario andreaki.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak esan du mezu horiek guztiak eta desiorik onenak helaraziko dizkiola funtzionarioari.

- Koldo Mendioroz Goldaraz (EH-BILDU) zinegotzi jaunaren arazo teknikoei dagokienez, Marian Mendiguren Mendibil (EH-BILDU) zinegotzi andreak idazkariari galdetu dio ea zinegotziren batek ezin badu osoko bilkuran entzun edo hitz egin, hura geldiarazteko aukerarik dagoen.

M<sup>a</sup> Carmen Rojo Pitillas idazkari andreak erantzun du kasu zehatz bakoitzean kalibratu beharko litzatekeela benetan murriztu den zinegotzi bakoitzak duen parte hartzeko eskubidea, baina kasu honetan ez da arazo teknikoaren existentziaren berri izan, galde-eskeen txandan egon arte.

Gentza Alamillo Udaeta (EAJ-PNV) alkate jaunak eskatu du etorkizunean arazo teknikoren bat dagoenean berehala abisatzeko, gelditu eta arazoa konpontzen saiatzeko; izan ere, kasu honetan, aipatu denean, galde-eskeen txandan zeuden.



# Aiarako Udala

Ayuntamiento de Ayala

Eta jorrazeko beste gairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilkura amaitutzat eman du arratsaldeko hogeiak eta hemezortzi minutuak direnean, eta aztertutako guztia jasota gera dadin, neuk, idazkaria naizen aldetik, fede ematen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita bateko maiatzaren hogeita batean.

O. E.  
ALKATE-UDALBURUA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA,

Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.